



# BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)



Zuoi denoi.

Ni olatu izateko,  
itsasoa izan zaretenoi.

Nire itsasaldian,  
olatukide izan zaretenoi.

Nire uhara zareten  
eta izango zaretenoi.

Zuri Arantza,  
nire hegats eta zakatz,  
nire itsasoko lorea.

Eta batez ere zuri Eneko,  
hitz hauekin batera,  
itsasoratu zaren  
bilobatxo  
maitea.

2022 maiatzak 26

Joseba Mikel Ugalde

LG BI 00738-2022

ISBN 978-84-09-40840-5

Diseinua, azala eta argazkiak egilearenak dira

Inprimatzailea : Leitzaran Grafikak, S.L. Andoain (Gipuzkoa)

NAIZEN ARTEAN  
NAIZEN ARTEAN  
NAIZEN ARTEAN  
NAIZEN ARTEAN

Niteratura

## Oharrak

Liburu honetako orrien ordena, atzeraka doan erloju digital batek markatuko ditu, eta halaber, adieraziko digu gutxi gorabehera zenbat denbora geratzen den amaierara iristeko.

> Bizitza ere, atzeraka doan erloju bat besterik ez delako.

Liburuaren azalean, nire etxebizitzaren zoru edo behegaina, bonbila zahar bat, husten doan harea-erlojua, eta nire aurpegi lausotsua agertzen dira.

> Bizitza ere, itzaltzen eta husten doan etxe bat delako.

Izenburuaren azpikaldean, letra ahul batekin eta erdi lotsatuta balego bezala, *Niteratura* hitza jarri dut, uste dudalako hitz ezin egokiagoa dela, hitz bakar batez, nitasuna ardatz duen literatura bat izendatzeko.

> Bizitza ere, nia bilatzeko bidea delako.

HITZAURREA  
HITZAURREA  
HITZAURREA  
HITZAURREA

*“Idazleak bi ardatzekin jokutzen du: oroitzapena eta irudimena”.*

**BERNARDO ATXAGA**

## 01:36:24

**L**iburu honek helburu argi bat dauka, nire oroimenari arnasa edo hauspoa ematea, lehendabizi *nizandakoa nidazterakoan*, eta gero baita, *nidatzitakoa nirakurtzerakoan* ere.

Bihartik aurrerako noizbaitean, nahiz eta ni hemen izan, nire nitasuna eta naiztasuna galbidean baleude, edota nire memoria argitasun gutxiko basoa balitz, sinetsita nago, egoera lanbrotsu horretan, norberak inoiz landatutako hitz-ilarak berriro irakurtzeak, igarokorra bada ere, irribarre bat ernatzeko balioko luketela. Eta hala ez balitz, hasperen sakon bat eginez, liburuaren azalari edo haren irudien zelaiari begira geratuko nintzateke, ene baitan bildurik, ezerezean.

Ni, neu naizen artean, hau da, ni, nire adimen osoz hemen jarraitzen dudan bitartean, naizena izaten jarraituko dut, nire egunerokotasuna dastatzen edo arnasten, eta berak dakarkidana gozatzen edo jasaten. Benetako olatua, irensten gaituena delako.

Gure egunerokotasunean, ezinbestean errutinak izaten du tarterik handiena, baina noizbehinka eta ezustean, ustekabeak agurtzen gaitu, berri pozgarriekin batzuetan, eta ezatsegin edo zorigaiztoekin beste batzuetan, patuak gurekin gurutzatzean izaten duen aldartearen arabera. Nahitaez, gure geroa berea da, eta azken hitza ere, berea izango da. Patua itsasoa da, eta gu, haren menpe dauden hondartzako hare-pikorrak.

01:35:05

Errutina hitza, lan jarraituarekin, denbora ezarekin, eta asperdurarekin lotzen ditugu gehienetan, baina ez da beti hala izaten, bizitzan errutina klase asko ezagutzea tokatzen zaizkigulako, eta horietako asko atseginak eta ederrak izaten dira. Goizero nire bilobatxoa ikastolara eramatea, eta gero liburu hau idaztea esaterako, errutinarik gorenetarikoa da.

Ez dakit ene garuneko bi *erdisferioen* arteko lehia kontuengatik izaten den, edo agian, bien artean elkar ondo ulertzearen eraginagatik, gauza da, modu zirimolatsu batean izaten bada ere, egunero eta noiznahi, ideiekin saltoka eta hausnarrean murgilduta ibiltzen naizela, oroitzapenen eta sormenaren lotura literario xume bat bilatzen, edo hurbileko zein mundu zabaleko kontu bitxietaz, ezohiko begiradak asmatzen.

Edozein ordutan izaten da - goizaldeetan ere bai - ikusten, entzuten, irakurtzen edo amesten dudan zerbaitek, nire memoriaren pasarteren bati kilika egiten dionean, barneko iratxoarekin hitzegiten hasten naizela. Keinu batez, izandakoak bion onespena lortzen duenean, mugikorrean ohartxo bat idatzi behar izaten dut, eta uste badugu izan ditugun argialdia zehaztea luze joko duela, haren gako-hitzetaz audio bat grabatzen dut.

Idazten edo audioratzen ditudan hitzak, ideien zirriborroak bezalakoak izaten dira, gerora, izango denaren nondik norakoa markatuko didatenak.

Margolariek ere, beraien koadroak modu beretsuan egiten dituzte. Hasieran, oihal gainean arkatz marra leun eta mehetxoek egiten dituzte, gero etorriko diren olio-pinturen pintzelkaden norabidean gidatzen laguntzen dietelako. Idaztea, hitzekin ideia bat marraztea da, eta mintzatea, ahotsekin idaztea.

Ideiak zehazten hasten naizenean, aspaldian idatzitako ohar txoak irakurri behar izaten ditut, erabakitzeko ea oraindik irribarrea edo keinu bat ateratzeko modukoak diren, edo hobe den zakarrontzira bidali eta ahaztu orduan izandakoaz.

Grabatutako audioekin gauza bera egiten dut, baina kasu honetan, play-hirukitxoari eman aurretik, irribarretxo batekin barneko iratxoari, *'Audioak, hau dio'* esaten diot. Hitz jokoak gustatzen zaizkigu.

Edozein unetan, ikusten, entzuten edo irakurtzen dudana zerbait, nahikoa izaten da antzina-antzinakoa izanda ere oroitzapen bat aktibatzeko, eta horrek aldi berean modu kateatuan, berez izaera oso desberdina duen beste batetara eramaten nau, eta horrela, iratxoak stopa jartzen duen arte. Bera da patroia, eta ni tostartekoa.

Itsasaldi luze eta neketsuetan, bizipen latzak saihestezinak izaten dira, eta hori ongi baieztatzen dute ontzi zaharren saihetsek, agerian izaten dituztelako bizitutako eskarmentuen markak. Oroimenak denak gordetzen ditu, latzak eta alaiak, baina adinean, zaborretara botatzen hasten da. Irudimenak, gero, bere erara itsasten ditu zatitxoak.

## 01:32:28

Oroitzapenen berezko kronologia eta liburuan hartu duten ordena ez datoz bat, nire oroimenak ausaz edo nahita aukeratuak izan direlako.

Niretzat idazteko tokia, ezkaratza, suetea edo sukaldea izaten da. Badakit ez dela ohikoa izango, baina hala da. Idazlea, berez sutsua izan behar delakoan nago, eta sutondoa leku ezin hobe da, hitz xume eta apalei, berotasuna eta saltsa emateko.

Mahai gainean pilatzen ditut paperak, koadernoak eta beste enparau guztiak, eta han epelean, olio, berakatz, kipula eta gatzen inguruan, beratzen, egosten, eta batez ere han erretzen dira nire hitz freskoak edo ideia izoztuak. Nire hitzak, xumeegiak dira espeziekin edo gozagarriekin sukaldatzeko.

Tarteka oroipen bat pilpilean jartzen zaidanean, hitz-biltoki gelara joaten naiz, ea hango nahasmen kontrolatuan, izandakoari erara datorkion osagaien bat aurkitzen dudan. Halakoetan, jakiten dut zer, baina ez non dagoen. Beno, han nonbait izaten da.

Aurretiaz dakit, gero nire sukaldean aterako dena, ez dela Mitxelin izarrak jasotzeko modukoa izango, ezta gutxiago ere. Baina sei axola zait niri izar kontuak, idazterakoan izarretan egoten bainaiz. Izarren salda urdina edanda, idazten dut gustura.

Dena esan behar bada, sukaldea mahaiaren atzekaldean geratzen da, aurrean portua dago. Esaldiren batean dauden komak aldatzekotan banabil, balkoira ateratzen naiz kaioei galdetzeko, baina ikusten nautenean, ihes egiten dute beti.

## 01:31:09

Liburu honen sorrera, albiste batek piztutakoa da, hura izan zen berriro idazten jarri ninduen, ez nuelako aurreikusten ezer gehiago idatziko nuenik. Aurreko liburuaren muina ere, akuiluka hasi zitzaidan, zerbait egin behar nuela esanez.

Behin ordenagailuaren aurrean nengoela, albiste hartaz dei pozgarri bat hartu nuen, eta instinctiboki, idazten ari nintzen istorioari etenalditxo eman, eta jarraian, hantxe bertan, hartaz idazten hasi nintzen.

Hurrengo egunean hartu nuen beste mezu batek ordea, modu larrian ez bazen ere, bezperako gure poztasuna apur bat lausotu egin zuen. Baina bizitzak aurrera jarraitu zuen, eta hala darrai.

Jakin banekienez, gai horri lotuta, dei edo mezu gehiago etorriko zirela, erabaki bat hartu beharrean aurkitu nintzen, biak ezabatu edo idatzita utzi.

Nire ustez, etenaldi hauek ez diote liburuaren tonuari edo batasunari kalterik egiten, alderantziz esango nuke, liburua ernatzen ari zela sortuak direlako, eta bien erditzea ere, batera izango delako.

Jaso nituen deiak eta mezuek, gertatu zireneko egun-orduekin, esparru itxi batean eta gezitxo batekin agertzen dira, hau da, liburuaren barruan bai, baina itxitura berezi batean.

Eremu honetako sorrerako gaia, bakarra, errepikaezina, zoragarria, eta gorena da.

Nire oroimenarekin solasean hasi nintzenean, argi nuen lema haren eskuetan utzi behar nuela, eta hala izan zen. Hark esan ahala, ni idazten nengoen.

Nondik hasi pentsatzen nenbilela, beste albiste bat izan zen hitzak kateatzeko eskua luzatu zidana. Liburu batek izandako sariaz izan zen. Beraz, liburu honen hasiera, beste baten hazieraz ari da.

Ondorengo oroitzapenak, nik neuk neure iragan urrun edo hurbilean, nire nitasunean bizi izandako eta sentitutako eskarmentuak eta emozioak dira.

Hainbat buelta eman ondoren, oroitzapenak bata bestearen atzetik doaz nahasian eta izenbururik gabe, bakarrizketa batean baleude bezala.

**P**asarte bakoitza, letra larri lodi eta handi batez hasiko da, hala izanik, liburua tarteka edo behaztopaka irakurtzeko aukera ematen duelako.

Oroitzapen luzeenek, ardatz gisara bizipen zehatz bat badute ere, kontatzerako orduan, oroimenak izandakoarekin lotura dituzten beste hainbat kontu ere nahi izan du idatzita utzi. Bera izan da patroiz gisara, une oro oroipenen norabidea markatu didana, eta ni haren aginduetara, hitzekin boga eta boga besterik ez dut egin, oroimen eginez.

Hondarrean doazen oroitzapenak aldiz, ur tantak bezalakoak dira, xumeak bezain gardenak, eta neuk bizitakoak badira ere, nire garaikideek ezagutzeko moduko pasarteak direlakoan nago.

*“Memoriaren intermitentzia, batzuetan agertu eta besteetan desagertu, bere hauskortasun eta indar guztiarekin. Oroimena aldizka azaleratzen da orainean, aspaldiko sentsazio, inpresio, ahots edota irudiak ekarriz. Kanporatzeko ekintza hori gorputzak egiten du bere indar guztiarekin, modu setatsuan. Egunez edo gauez. Esna dagoela edo ametsaren unean”.*

IXIAR ROZAS (Beltzuria)



NAIZEN ARTEAN  
NAIZEN ARTEAN  
NAIZEN ARTEAN  
NAIZEN ARTEAN

Niteratura



**G**oiz hartan, bizarra kentzen ari nintzela, irratiak sekulako poztasuna erradiatu zidan.

>>>> *Euskadi Literatura Sariak 2021. Irabazleak, ..., Haur eta Gazte Literatura saria, ... Anjel Lertxundi, 'Haltzaren muinoa' liburuagatik, ...*. Ispilua lekuko izan zen.

Anjelen eta liburu haren izenak entzutean, barru-barrutik zirrara-malkoak atera zitzaizkidan. Gosaltzen hasi aurretik, liburu hartu eta ireki nuenean, han ziren data eta hitzak. Zorionak emateko mezua bidali nionean ere, zirrara-malkoak.

Azkeneko aldiz Zarauzko malekoian elkarrekin izan ginenean, liburu eraman nion sina zezan, eta bere eskuetan utzi nuenean, hunkitu egin zen. Berarentzat, idatzi dituen libururik kutunena da. Dena kontatu zidan. Non, noiz, nortzukin eta zergatia. Ipuinaren istorioa ederra bada, bere historia oraindik ederragoa da.

Eta gaurko gaurrean, hitz hauek idazterakoan ere, zirrara-malkoak atera zaizkit. Halakoa naiz ni.

**B**idaia bat prestatzen ari ginen, baina oraindik erabaki gabe nuen zein liburu eraman. Apaletan aspalditik ia ahaztuta nituen pare bat aukeratu, edo sarean nire gustuko berriren bat bilatu, eta hori bai, berandu baino lehen liburudendakoei eskatu. Lo aurreko ohiko irakurraldia, argigarria izan nuen.

## 01:27:13

Albora begiratu barik eskua luzatu nuen, eta han zegoen ohe-mahaitxoan aingeru guardakoa bezala, Anjel Lertxundiren *‘Eskarmentuaren paperak’*, edozein orrialdetik irekitzen dudan liburua. Erdikaldeko orrialde batean, aipu hau irakurri nuen, “*TONUA DEITZEN DIOT narratzea posible egiten digun hizkuntzaren erritmo jakin bati*”. (Ricardo Piglia, *Crítica y ficción*).

Egun pare bat geroago, liburua eskuetan nuen, eta Pigiaren gogoetek, herritik kanpo izaten ohi dudan errutinan, berehala aurkitu zuten beraien tartetxoak. Urte batzuk pasatu dira ordutik, baina oraindik gogoan dut, merkatu txiki batean geundela, eskuetan nuen liburua behatu ostean, artisau batek *‘Saludos a Piglia che!’* esan zidala, eta nire harridura inozoak, lotsati *‘Bale’* erantzun ziola.

Liburuan, Pigliak bere ikuspuntu bereziarekin, kazetari baten galderei erantzunez, Literatura unibertsala, hegoamerikarra, eta bereziki argentinarra aztertzen ditu, Arlt, Borges, Cortazar, Sarmiento eta Kafka dira nagusiki aipatuena.

Ohi dudan bezala, liburuko hainbat orrialde utzi nituen tolesdura txiki batzuekin markatuta, gustatu zitzaidan zerbait dagoela oroitarazteko.

Niretzat berria den idazle baten liburu bat irakurtzen hasten naizenean, ohitura dut haren izenarekin lotura duten esteka batzuk irakurtzea.

Piglia gaitzat hartuta, sarean bi irakurketa aurkitu nituen, biak bitxiak, boxeoarekin zerikusia zutelako.

## 01:26:54

Nire belaunaldiak lotura handia izan du boxeorekin, gurea izan zelako lehena konbateak telebistan ikusten hasi zena. Institutuko garaiak ziren goizaldeko orduetan altxatzen hasi nintzenean, Cassius Clay, Sonny Liston, Joe Frazier, Urtain eta beste hainbaten borroka ikusteko, eta hurrengo goizean klasekideekin komentatzeko edo 'aditu' gisara ikusitakoaz eztabaidatzeko.

Piglia eta boxeo(\*) uztartuta, hauek izan ziren lainoetan irakurri nituen bi pasarteak.

Lehendabizikoa, kazetari batekin izandako elkarizketa batetatik ateratako idazlearen erantzun bitxi bat da.

Kazetariak - *Nicanor Parrarekin izan zinen:*

Erantzuna - *Egun bat eman genuen berriketan eta ardoa edaten. Pisu arineko boxeolari handi haiek gogorarazten dit, (Cirilo Gil edo Nicolino Locche) azkarrak, arinak, dantzan ariko balira bezala mugitzen zirenak. Parra, poeta boxeolaria.*

Hau irakurri nuenean, aipatutako bi boxeolari hoietaz sakontzeko gogoia piztu zitzaidan, eta sareetan hiruzpalau bideo ikusi nituen.

Orduetik, sekula ikusi dudana boxeolaririk bereziena, Nicolino Locche dela esango nuke. Haren estiloa edo estrategia ez zelako oinarritzen aurkariari ukabilkadak nola eman, bestearen kolpeak saihesten eta bere KONortea ez galtzen baizik.

\* Jack Londonen *'Haragi-xerra batengatik'* izeneko ipuin zoragarri hura irakurri nuenetik, boxeo eta literatura batera doazenean, *'Ze konbate ederra'* esaten dut.

Horregatik Loccheri, *'El intocable'* deitzen zioten.

Bigarren pasartean, idazlearen *'El Laucha Benítez cantaba boleros'* izeneko ipuina aipatzen da.

Sarean aurkitu nuen, eta ederra iruditu zitzaidan. Kronika basatia bezain bitxia da, bi boxeolarien arteko muturreko adiskidetasuna kontatzen duena.

Bi protagonistak boxeolariak dira, bata beteranoa, eta behin egindakoa gogoratzen bizi da, bestea aldiz gaztea, baina ez du inolako ametsik, bestearen iragana delako liluratzen duen gauza bakarra.

*Laucha* hitza, mapucheen *llauchatik* (sagu txikia) dator, eta Hegoameriketean, pertsona txiki eta argalei esaten zaie. Guk *potrozorri* esaten diegu.

Duela berrogei urte Txilera joan nintzen, Santiagon nituen izeba-osabak bisitatzera. Hegoaldetik ibili ginenean, Temuco, Pucón, Villarrica, Licanray eta Panguipulli inguruetatik, behin baino gehiagotan agurtu genituen bide ondotik zihoazen mapucheak, beraiek, irribarre batekin *Pewkaya!* (Agur edo Hurrengora arte) erantzuten zigtelarik.

Gure kotxea urruntzen zenean, beharbada *Llaucha!* ere gehituko zuten, orduan argalagoa bait nintzen.

**P**igliaren liburuan, bada beste pasarte bat sekula ahaztuko ez dudana, nire familian gertaturiko kontu latz bat, hango hitzekin iltzatuta geratu zitzaidalako. Nire oroimenak sarritan esaten dit, *'Liburu hartan, Piglia sasisolamendu batetaz ari zen.'*

## 01:23:17

Aipatutako pasartearen, kazetariak idazleari galdetzen dio, ea idazteko denbora zerekin lotzen duen berak, plazerrarekin edo angustiarekin.

Pigliaren ustetan, hasierako kontzentrazioa da nahitaezkoa. Hori lortzen ez denean, egunero laupabost orrialde idazten badira ere, mekanikoki, inspirazio gabe idatzitakoak izango dira, eta testuak ez du izango behar duen bizitasunik, ez arimarik.

Gero, beste idazle batzuk izan zituzten ohiturek aipatzen hasten da. Batzuk kafearen, anfetaminen, edo alkoholaren laguntzarekin hasten dira idazten. Hemingway erromantikoa zenez, haren esanetan, idazteko maiteminduta egon behar zuen.

Bernhardek, bere prestaketa eta dorreko isolamendua, bere eleberrien gai nagusia bihurtu zuen. Kafka, dio Pigliak, onena zenez, maniatikoena ere bazen. Idazten hasten zenean, soto batean isolatuta nahi zuen egon, eta janaria, ezezegun batek egunero korridorearen sarreran uztea.

Kafkarena iltzatuta geratu zitzaidan, eta COVID19a heldu zitzaigunean gogoratu egin nuen, nire iloba baten isolamendu behartua, idazlearen borondatezkoarekin lotu eta alderatu nuelako.

Ama bat etxean, bere logelako lau hornei begira, senarraren eta lau seme-alaben ahotsak, kankak, negarrak edo algarak entzuten, baina elkar ezin ikusi. Egoera kafkianoa inolako zalantzarik gabe.

01:21:58

Ilobarena Kafkarekin kateatu nuen, eta hirugarren katebegi bat ere berehala etorriko zen, arrebarena. Txertoen garaia heldu zenean, eta bere txandaren zain zegoela, gure arreba nagusia kutsatu eta ZIU<sup>n</sup> isolatuta egon ondoren, zendu egin zen.

Azkar joan zen dena. Egun latzak izan ziren gure familiarentzat, eta oraindik ere ezin sinestu gabiltza. Mundu guztiko egunkarietako, irratietako eta telebistetako gai nagusiak, gure atea jo zuen.

Anartz ilobaren deia jaso nuen gau hartan, negar-zotinka eta amorru bizian, mugikorrean inolako etenaldirik gabe, hitz hauek idatzi nituen:

*Amorruz madarikatzen zaitut, Covid putaseme nazkagarria. Madarikatzen zaitut nire indar guztiekin, zomorro koldar, traidorea eta hiltzailea, presa erraza zela ikusirik, nire arreba maitea erail duzulako.*

*Madarikatzen ditut nire indar guztiekin, zure jatorria, eta baita zure ondorengoak ere.*

*Noizbait atxilotzen zaituenean, eta bizia kentzen dizutenean, zure hilobira joango naiz, eta nire indar guztiekin, goitik behera dena sunsituko dut.*

*Gero, erregairik sukoienarekin, zure hondakinak blaituko ditut, zu zure suaren kea bihurturik, betirako gal zaitezten.*

*Covid madarikatua. Putaseme nazkagarria.....*

**Azken lau hitzak, hemeretzi aldiz errepikatu nituen.**

Erantsia-(2022-02-25)- Errusia eta Ukrainarena, nire begi-ninietatik. Isolatuta egon zen nire ilobaren bi semeak errusiarrak dira, eta bi alabak aldiz ukrainiarrak. Han, etsaiak agian, hemen ordea, neba-arrebak eta bermeotarrak. Oier, Hart, Amets eta Alaitz, gure lau iloba inportatuak eta inportanteak. Hauek, sorterrria eta zorte-herria dituzte.

## 01:20:39

**I**gande goiza zen eta ohi bezala, egunkaria eta arto-ogia erostera atera nintzen. Covidaren ondorioz, okindegi kanpoko espaloian ilara luzea zegoen. Azkena, Kolonbiarra, Ekuadordarra, edo inguru haietan jaiotako gizon gazte bat zen. Nire lekua hartu nuenean, berehala, duela hamar hamabi urte bizi izandako pasarte barregarri bat gogoratu nuen.

Herriko jaietan geunden, eta kuadrilakoak nahiko txikito edan ostean, taloen eta txistorren txosnara joan ginen. Gure txandaren zain geundela, irribarre batekin, eta ‘nahi gabe nahita’, nire alboan zeuden bi gizonen arteko solasaldia entzun nuen.

Biak herritarrak eta lankideak ziren, bata euskalduna, herrian bertan jaiotakoa zen, eta bestea, bere hazpegietatik Hegoameriketatik aspaldi etorritakoa. Hauek izan ziren, seriotasun osoz beraiek gurutzatu zituzten hitzak.

Batak - *Aquí, el maíz es arto.*

Besteak - *Pues allá también hay harto maíz.*

Egun hartan entzun nituen bi hitz homofono haiek idatzita ikusterakoan, ama gogoratu nuen, eta nire baitango nonbaitetik, esaldi hau atera zitzaidan;

*Gure etxean, artoa maíz.*

01:19:11

2021-11-16- 09:42

Semearen telefono dei bat jaso dut. Eskegi dudanean, pozez gainezka, orain eta hemen bertan, artoaren kontakizunari etena eman, eta esparru itxi honetan, idazten hasi naiz.

*Zure aitak deitu dit, amaxuri egin dioten analisisien arabera, mutila zarela esateko. Bagenekien hor zeundela, amaren sabel epelean, baina gaur arte ez genekien etorkizunean lagunek nola deituko zizuten, 'alabatxi' edo 'txo'. Azkenean 'txo' izango zara. Gurasoak adostu eta arrebak bere oniritzia eman ondoren, zure izena Eneko da. Amona, izeko eta hirurok oso pozik gaude, hurrengo udaberrian gure habiatxoan bi eratako txioak izango ditugulako.*

*Bidean zeundela jakin bezain laster, liburu hau idazten hasi nintzen, horregatik da bereziki zuri eskainia, zure lehen segundutik nire uhara zarelako. Eta jakin ezazu, zure arrebari esan edo idatzi dizkiodan guztiak, modu beretsuan zuri esanak eta idatziak ere badirela, nire ametsa zuekiko gauza bera baita, noizbait zuen heldutasuna nire ahuldadearekin bat egin dezala, bitartean, ametsak izango ditut lagun.*

*Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea. Maiatzera arte.*

## 01:17:52

Gure amak urte askotan eta gauero, aise irauliz hiruzpalau talo egiten zituen, haren esku-ahurak talo-burdinak bezain gogorrak zirelako.

Azken esaldia idatzi eta begiak itxi ditudanean, nire bihotzeko fonotekatik, eta baita lainoetako audiotekatik amaren ahotsa entzuten hasi naiz.

San Juan bezperetan ere, amaren ahotsa entzuten dut, bere gaztaroan Mañu auzoan, suaren ondoan kantatzen zutena gogorarazteko.

*‘San Juan, San Juan bagilian, denbora ederrian, sugoiak eta sapuak erre, gariak eta artoak kaxan gorde.’*

Bihartik aurrerako noizbaitean, nahiz eta ni hemen izan, nire nitasuna eta naiztasuna galbidean baleude, edota nire memoria argitasun gutxiko basoa balitz, sinetsita nago, egoera lanbrotsu horretan, norberak urteetan jandako taloak, berriro dastatzeko aukera izatea, igarokorra bada ere, irribarre bat ernatzeko balioko luketela.

Eta hala ez balitz, jar itzazue entzungai, liburu honek hastapenetatik izan duen soinu-banda\*, hitzak bilatzen, elkartzen, eta batez ere, oroipenekin eztitzen lagundu didaten melodiak batzen dituelako.

\*Arto Tuncboyaciyänen *Hoonk* eta *Zeytuni zar*; Renaud Garcia-Fonsen *Silk Moon* eta *Sylvains d’orient* eta beste musika pieza batzuekin osaturiko *‘Naizen artean’* playzerrenda, noiznahi eskuera izateko, lainoan eskegi nuen.

Doinu hauek entzutean, hasperen sakon bat eginez, ene baitan bildurik ezerezean, begiak itxi eta irribarre zabal batekin, lotan geratuko nintzateke.

## 01:16:33

**E**rrioxatik asteburu pasa egin eta gero, etxerantza gentozela, atsedena hartzeko Zuia bailarako Murgian gelditu ginen. Bezperan, sareetan inguru horretako zerbait ezezaguna bilatzen ibili nintzen, leku berriren bat ezagutzeko asmoz.

Oroko edo Atxabalko haitzak izeneko parajea, baseliza bat eta hari itsatsita jatetxe bat zeudela irakurri nuen, eta helburua, biak ezagutzea zen.

Goranzko bidea hartu genuenean, errepide erdian hor-hemenka behi gorotzak ikusten hasi ginen, eta apur bat gorago baita egileak ere. Behiak ikusi eta berehala, nire oroimena ere hausnarrean hasi zen.

Nahiz eta ni herri arrantzale batetako kaletarra izan, bularretik datorkit baserri giroa, amak mundura nentorrela sumatu zuen unean ere, behia jezten ari baitzen. Beraz, errapeetako esnea, eta gero amarena, nire sorrera filmaren bi sekuentzia dira.

Hasieran, gure *korta* edo ukuilua, gure etxetik ehun metrotara, alde zaharreko eraikin batetako etxabe batean zegoen, garai haietan gure herrian beste hainbat kokatuta zeuden bezalaxe.

Bermeon, baserria eta itsasoa historikoki uztartuta daude, baserritar asko eta asko arrantzaleak izan zirelako eta direlako, edota baita arrantzale askok beraien ‘etxe-egunetan’, inguruetan dituzten ortuetan, barazkiak ereitzen dituztelako.

## 01:15:14

Kortako kale berean bizitzen ziren ‘*Mahatsorri*’ ezizendun familiakoak, bezeroak ziren. Beheko kalean ‘*Anakabetarrak*’, eta goikoan aldiz ‘*Landabasotarrak*’ edota ‘*Emili-txiki*’ren etxeokak ere, gure esnearen zain izaten ziren. Gogoan ditut.

Gero gurasoek, herriko kanpokaldean eraiki zuten korta berria, eta guk, nahiz eta hormigoizko etxe sendo bat izan, *txabola* deitzen genion, agian inguruan zeuden besteetatik ez bereizteko.

Gure familiako gaztetxoek lehen paradisua, hura izan zen, han kokatzen dituztelako beraien haurtzaroko oroitzapen ederrenak. Adinean bata bestearen atzetik, Garbiñe, Leire, Mikel, Iker, Anartz eta Itsaso, gure katiuskadun lehorreko sei piratak.

Nire memoria ahulean, oraindik nahiko argi dago han bizi izandako eszena bat. Mutil berdingoa nintzela, goizalde batean, aita eta biok behi baten erditzearen zain ginen. Behin bizitzen dena, nekez ahazten da, eta behietaz bada, are gutxiago.

Kontu haiek egunez gertzatzen zirenean, albaitaria etortzen zen artatzera, baina gauez izango zela zirudienean, hobe zen aurretiaz laguntza hitzartuta izatea, gerora eskuera izateko. Aita mesedeak egiten leiala eta nekazina zenez, eskatzeko ere askea zen.

Gau hartan, aita eta biok, goian, lastategian etzan ginen, eta goizaldeko ordu txikietan, behiak erditze murrusak egiten hasi zenean, ez dakit aita izan zen, edo ni agian, inguru hurbilean zegoen -oraindik dagoen- baserri hartara joan ginen abisua ematera.

## 01:13:54

Bertakoak ezagunak ziren, eta hango gizona Markos, prest zegoen beti auzolanean aritzeko.

Han nengoen ni, kortako izkina batean harrituta, oraindik zutunik egoteko indarrik ez zeukan txahaltxoari begira. Ez nago ziur, baina baietz esango nuke, jaioberria suspertzeko biberoi modura, botila bat ardo, koñak edo antzekoa eman ziotela edatera. Agian haiek bazekitelako, epe laburretarako, alkoholak ahula indartzen duela.

Nire apalategian bada liburu bat oroipen honekin iltzatuta dudana, John Berger idazle britaniarraren *'Fotokopiak'* izenburuduna hain zuzen ere. Norbaitek aholkatutako liburua izango da, edo nonbaiten aipamena irakurri eta erositakoa.

Egia esan, liburuaren azala erabat ahaztua nuen, nahiz eta bere urdin eta gorrizka kolorezko bi siluetak deigarriak izan. Erraz aurkitu dut, ez baitut egile horren besterik. Izenburua jakitea lagungarri izan dut, bere azala baino ahaztezinagoa delako.

Liburuan, idazleak bere bizipen arruntenak modu ederrean kontatzen digu. Bostpasei orrialde ditut markatuak, baina ohikoa ez badut ere, ezuste pozgarria, haietako bat arkatzez idatzita utzi nuen.

Hogeitabi zenbakidun kontakizunak, *'Bi gizon eta behi bat'* izenburua du, eta idazlea, gure Markosen paperean ari da, auzolanean. Berger versus Markos.

## 01:13:35

Urte Berri eguna da, eta bere laguna den Louisek deitzen dio laguntza eske, Blanquette behia erditzen hasia delako. Laguntza hitzartua agian.

Hasierako orrialdean, bi abizen agertzen dira idatziak, *Anasagasti* eta *Laskibar*. Lehena aipatutako Markosen abizena da, eta bestea, garai hartako albaitariarena. Azken honen abizena, beharbada ez ahazteko idatziko nuen, edo bere biloba ume-umetatik nire semearen kuadrilakoa delako, ez nik goizalde hartan ikusitako eszenan parte hartu zuelako. Egunez bai, sarritan ikusi nuen gurean.

Bergerren esanetan, bildumako kontakizunak berak bizi izandako pasarteen fotokopiak dira. Nirea ere nik neuk bizitakoa da, baina nire fotokopiak askoz lausoagoak dira, nire memoriak tinta gutxiago duelako. Hori bai, bietan behiak daude.

**B**ehin, talaiako kantina parean itsasoari begira nengoela, neure buruari galdezka hasi nintzen.

*Zer da bizitza?* atera zitzaidan modu ozenean.

Aldamenekoen harridura begiradei kasurik egin gabe, nire irribarrea hitz egiten hasi zen.

*'Bizitza bidaia bat da. Gehienontzat, ezerezetik ezer gutxira, eta bueltan ezerezera doana, eta Oteizarentzat aldiz, hautsetik hutsera, eta bueltan hautsera zihoana.'*

Bakarrizketa amaitu nuenean, ondoan ez zen inor.

Gaur egun, bikote haretako gizona zkoa, ezerezera joana da, eta emakumeak ordutik, *Agur!* egiten dit.

## 01:12:14

**G**ogoan dut, tabakoa eroatera atera nintzen batean, estankoaren kanpokaldean emakume hura ikusi nuela. Beste batekin hizketan ari zen, eta *‘Abante!, lasai, gu ez gaude ilaran’* esan zidan.

Gurea bezalako herri txikietan, sarritan gurutzatzen gara bizilagunak, eta harekin ere hala izaten da. Buruarekin agurtzen gara besterik gabe, baina bere ahotsa entzun nuenean, hausnarketetarako gogoia piztu zitzaidan. Ez dakit berak dakien, baina bera nire bular-arreba da, nire amaren bularretatik edandakoa delako. Etxean entzunda dakit, noski.

Geroxeago, kafearen atzetik zigarroa piztu nuenean, *erre ke erre* hausnarrean hasi nintzen. *Amaren bularra, haurraren janari,...* Katea luzatu egin nuen.

Emakume haren amaren bularrek emari gutxikoak izango zirenez, bere alabatxoa elikatzeko laguntza eskatu beharrean aurkituko zen. Halakoetan ohikoena, esnealdian zegoen auzokideren bat edo ezagunen bat bilatu, eta norberaren umea haren bularretara eramatea izaten zen. Batera aritu ginen.

Nire amona Barbarak eta aitona Justok, nahi gabe izan bazen ere, hurbil-hurbiletik ezagutu zuten gure amaren kontu antzekoa, baina gordinagoa.

Aitona argina zen eta behin, Matxitxakoko bidean harresi bat altxatzen ari zirela, istripu bat izan zuten. Harri erorketa batek larri zauritu zuen aitona, eta ondorioz, luzaroan oheratuta egon behar izan zuen. Orduan gaixoek ez zuten laguntzarik.

## 01:10:55

Etxeko diru sarrerak eten egin zirenez, amonak bere etxekoen janaria ziurtatzeko, erabaki latz bat hartu zuen. Oraindik asteak zituen Inazio semetxea koinataren bularretan utzi, eta bereak, Madrileko ume aberats baten ahoan jarri. Baserritarra zenez, hirian esne-saltzaile izatea, ohikoa egingo zitzaion.

Garai haietan, gure herriko emakumeak, oso estimatuak izaten ziren, Bilbo, Donostia, eta baita Madrilen ere, *aña-freska*, hazama edo inude lanetan aritzeko. Ezohiko egoeretarako, ohiko ogibidea zen. Emakume asko, norberen umeak hazi eta gero ere, adinean sartuta eta bularrek zimelduta, etxeko ekonomiari laguntzeko, beste batzuen bilobak zaintzera, umezain edo *aña-seka* joaten ziren.

**Z**inea gustukoa dut, baina ez naiz zinemazale sutsua. Gehien gustatzen zaidana, filmetako istorioak atzean izaten dituzten historiak jakitea da. Niretzat gogokoenak, benetako gertaeretan edota literaturako obretan oinarritzen diren istorioak izaten dira. Hala ere, zinea ikustea baino nahiago izaten dut liburuak irakurtzea, orrialdeak irekitzen ditudanean, istorioaren eszena guztiak nire irudimenenaren zuzendaritzapean geratzen direlako. Soinu-banda ere, nire esku izaten da.

Batzuetan, liburuetan azaltzen diren pasarte batzuk, ez dira filmetara pasatzen, baina ez denbora faltagatik, lotsa edo zentsura kontuengatik baizik.

01:09:36

Idazle bat, zinea eta zentsura elkartzen dituen kasurik nabarmenena, niretzat John Steinbeckena da. Idazle estatubatuarrak, bere obra osoan inork ez bezala, orduko gizartearen gabeziak edo miseriak azaltzen ditu, agian bera ere igeltseroa eta baita nekazaria ere izandakoa zelako. Bizitzea jasatzea da.

Bere liburu asko zinemara eramandakoak dira, baina *Suminaren mahatsak* en kasua berezia da, hitzetatik irudietara pasatzerakoan, pasarte eder bat zentsuratua izan zelako. Bere gordinean filmatu bazen, bai zinearentzat eta baita gizarte osoarentzat ere, gorena izango zelakoan nago. Pasarte hori lehen aldiz irakurri nuenean, aldeak zubituz, amarekin eta amonarekin gogoratu nintzen.

Liburuaren azken hiru orrialdeetan, idazleak muturreko egoera bat deskribatzen du.

Emakume gazte baten erditzean, umea hilik jaio da. Leku berean, sei egun jan gabe daramatzen gizon gaixo bat agertzen da. Gaztearen amak, senarrari eta hiltzorian dagoenari begiratu ostean, alabarengana hurbiltzen da. Fitsik esan gabe, elkarri begiratzen diote, eta alabak lasaitasunez eta soseguz, amari *Bai* diotso. Bakarrik geratzen dira biak. Emakumea, gizonaren ondora doa, eta gozotasun-gizatasun osoz, bularra ematen dio.

Steinbeckek, pasarte hori idazteko, Valerius Maximusen ipuin batean oinarritu zen, eta idazle erromatarrak, antzinako elezahar batean funtsatu zuen berea, non Pero alabak, espetxean gozez zegoen Cimón aitari bularra eman zion.

01:08:17

Baina Plinio zaharraren esanetan, benetan gertaturiko jazoeran, alabak bularra ez zion aitari eman, baizik eta kartzelatuta zegoen amari.

Nire ustetan, Plinioren bertsioa barne-barnekoagoa eta ederragoa da, alabak amari umetan hartutakoaren ordainetan ematen diolako.

Esnealdian, norberaren umeari ez ezik beste norbaiti esnea emateari, erromatarrek *Caritas romana* esaten zioten, eta hainbat artistek islatu dute ekintza hori beraien koadro edo eskulturetan, Caravaggio, Rubens, Dirck van Baburen, Charles Mellin, eta Solák esaterako.

*“Ez da adorerik behar, egin dezakezun gauza bakarra egiteko”.* JOHN STEINBECK

Aipu honekin, idazleak dena laburbildu zuen.

**A**spaldian irakurri ez dudan liburu bat berriro eskuetan hartzen dudanean, ireki eta usaintzea gustatzen zait, begiak ixten dudanean, oraindik bizirik ditudan oroitzapenak azaltzen zaizkidalako.

Duela mende erdi pasatxo, institutoan nenbilela, ikusi nuen lehen aldiz norbait liburuak usaintzen. Institutoko literaturako irakaslea izan zen, nork bestela egingo zuen halakorik. Ignacio Arocena jauna, donostiarra zen jaiotzez, baina bere bizitzako urte gehienak Bermeon igaro zituen, eta herrian zendu zen, ja semetzako izendatua zelarik.

01:06:59

Arocena jauna, gure herrian instituzio bat izatera heldu zen, eta gerora, baita instituto bat ere, berria eraiki zutenean, bere izena jarri ziotelako.

Ona bezain inozoa zen. Gure garaietan, soinean beti bi pakete tabako eramaten zituen, bat berentzako, eta bestea, ikasle-eskale sutsuenei emateko. Literaturazale amorratua zen, eta gure lehen irakurketak dudarik gabe, berak aholkatutakoak edo iradokitakoak izan ziren.

2021-11-18, 11:08

*Zure aitak mezu bat bidali digu, amatxuk PCR frogan positibo eman duela esateko, beraz ehun egun besterik ez dira zure lehen zelula zigotoa sortu zenetik, eta jada konfinatuta zaude. Halakoa da bizitza.*

*Herenegun zure generoaren berri izan genuen, eta gaur aldiz, zure hatz-aztarnak itxura hartzen ari direnean, Covid-19aren gen eroa, seigarren olatuaren gainean, zure etxearen ertzean lehorreratu dela jakin dugu.*

*Lasai lobatxo, pasatuko da.*

*Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea.*

Gure etxeko kutxa zaharrean, denetik dago, paperak, aldizkari zaharrak, agiriak, eta abar, baita irakasle haren klasean hartutako apunte zahar batzuk ere. Ditudan orduko apunte bakarrak dira.

Apunte gehienak eskuz hartutakoak dira, baina badira gutxi batzuk, Mertxe arrebaren koinatu nabigatzaileak Holandatik ekarri zidan nire Olivetti zaharrarekin garbira pasatutakoak ere.

Gai nagusia, Erromantizismoa da -Prosa, ironia, lirika, desilusioa, antzerkia,..-, Edgar Allan Poeren poetika Baudelaireren ikuspegitik, Errealismoa Erromantizismoaren aurka, idazleen aipamenak, Larra esaterako, eta goraipamen argi bat, Domingo F. Sarmiento eta bere *'Facundo'* liburua.

Oraindik gogoan dut, nola zirikatzen nuen irakaslea, Poe eta poetika hitzen antzekotasunari buruzko hitz jolasekin, edo goiko kurtsoko batzuk, berari liburuak eskatzeko zuten 'aurpegiari' *'Doninazismo'* izena jarri niola. Ume kontuak.

Apaletan baditut oraindik garai hartako liburu batzuk, baina nire oroimenean bada liburu bat beti gogoan dudana, nahiz eta ezer gutxi jakin haretaz, ez dakidalako ez liburuaren izenik, ezta idazlearena ere. Apunteetan ere, deus ere ez. Asmazioa agian.

Behin irakasleak, liburu baten laburpena irakurri zigun, eta oroitzen dudan gauza bakarra, protagonista, adimen urritasuna duen emakume batekin erabat maitemintzen dela. Ez du harekin hitzik gurutzatu, ez daki ezer haren gabezia, baina haren dotoreziak eta haren diskrezioak, txora-txora eginda dauka. Eta ni txoratuta, liburu haren bila.

01:03:22

Gaur egun utzita badut ere, urteetan liburu haren atzetik buru-begi-belarri ibili nintzen. Argi dago erromantizismoarekin lotuta dagoela, eta beti pentsatu izan dut liburua Larrarena izan zitekeela, eta emakumearen izena, Julia zela. Baina ezer ez.

Idazle madrildarrak badu Julia izeneko liburu bat, baina laburpena irakurri dudan bakoitzean, ez dut aurkitu Juliaren ganbara galduaren zantzurik.

Oraindik hor dago liburua, nonbait, nire bide galduetan, edo asmazio bazterretan agian. Auskalo.

Baina bide galduekin gurutzatzen diren bidezidorrak ere ezustekoak ematen dutenez, sarean Larraren obra kuxkuxeatzen nenbilela, *Aiba!*, nire herriaren izena agertu zitzaidan.

Bai, Larra, 1832ko udaldian Bermeotik ibilitakoa zen, bere aita medikoa zena, garai hartan hemen lan egiten zuelako. Idazleak orduan hogeita hiru urte izango zituen, erraz imajina dezaket, lepoan arrantzale zapia jarrita eta bere hitz jariora baliatuz, herriko jaietan neska gazteak liluratu nahiean.

Manuel Bretón de los Herreros, eta Juan González de la Pezuela, gerora Chesteko kondea izango zena, Larraren lagun minak ziren, eta batak besteari, lagunaren gorabeheretaz bidalitako eskutitzean, zera diotso;

*“El imperceptible Larra está en Bermeo con su padre, el versátil Vega, como siempre; el dulcisono Alonso, ídem; el sochantreo Roca de Togados, con un brazo dislocado....”*.

(Imperceptible deitzen zioten, gizon txikia zelako)

01:02:03

Garai haietan, edozein erabaki hartzerakoan, herrietako medikoek, abadeek bezala, botere handia izaten zuten. Larraren aita Bermeon zegoela, herriko agintariek hilerri berrirako lekua bilatzen ari ziren. Antza denez, hark aholkatuta Ormabarrieta ingurua erabaki zuten, eta han dago oraindik, *Mendiluz* izeneko hilerria. Handik metro gutxitara, *Ignacio Arocena* instituto berria dago, Nire memoria ahulean ere, nolabait, irakaslea eta idazlea, eskua emanda daude, elkarren ondoan.

**S**teinbecken ‘*Suminaren mahatsak*’ liburuaren pasarte hartaz idatzi nuenetik egun gutxitara, egunkari batean albiste bitxi bat irakurri nuen.

Liburua atera zenetik, han idatzitako hitz batek zeresan handia eman zuen, baina laurogei urte geroago izan bada ere, azkenean dena argitu da.

Idazleak bere eskuizkribua bukatu zuenean, azken orrian ohiko *End* hitzaren azpian, denen harridurarako, letra handiz *Slut* hitza idatzi zuen.

Zer dela eta idatziko zuen idazleak, ingelesez emagaldua esan nahi duen hitz hori, haserrealdizko unetxoren bat agian, hor zegoen misterioa.

Esan bezala, duela gutxi, Frantziako Éditions des Saints Péres argitaletxeak, eskuizkribu haren faksimila argitaratu duenean, irakurle suediar batek argitu du dena. Antza denez bidaia bat da gakoa.

01:00:47

Liburua argitaratu baino bi urte lehenago, Steinbeck emaztearekin Suediatik ibili zen, eta han xelebrea irudituko zitzaion batez ere gazteentzako idazten ziren liburuak, END hitzaren ordeztan SLUT sinonimo suediarrekin amaitzen zutela ikustea.

Ez dakigu liburua opor haietan bookatutakoa izan zen edo ez, baina zegoela idazlea Estokolmon edo zegoela Kaliforniako Salinasen, liburuaren azken orrialdearen azken hasperenean zegoelarik, izango zuen halako goiargixoren bat, esango ziona;

*‘Suediarren hitz hau, beren-beregi sortua da liburuei amaiera emateko, baina nik erabiltzean, hango akademikoei keinutxo bat egiteko ere lagundu diezadake, ea bihar-etziko Nobel Sarietan gogoan izaten nauten, eta era berean baita hitz ezin egokiagoa, nire herrian eztabaida bitxi bati hasiera emateko’.*

Idazleak irribarre batekin, bere barne-ahotsari *‘Three birds with one stone’* erantzungo zion.

**G**oiz batean, Enara bilobatxoa ikastolara eraman nuenean, patioko lurzoruan klarionekin marraztuta, aspaldiko laukitxo ezagun haiek ikusi nituen.

Atera nintzenean, joko zelai hark oroitarazi zidan istorio nahaspilotsuetaz gauean itxuraz idazteko, ahaztu baino lehen, nire irribarreak mugikorrean hitz batzuk idatzi zituen. *Koixo-pla, Rayuela, Ataun,..*

Urteetan, joko hura ikusi gabe egon nintzen. Kontu hauetan ere modak izaten dira, eta noizbehinka, ia ahaztuta izan duguna bueltan etortzen da berriro, izan txapak, tabak, tronpak, sokasaltoa, kanikak, edo beste edozein jolas. Antigoalekoa beti dator modan.

Gure gaztaroan, parkeetan, kaleetan, espaloietan, edonon, normalean neskek marraztutako, *koixo-pla*, *-tronpaka* ere esaten genion- edo txangoka jolasteko zelaitxoak ikusten ziren.

Gero, nire heldutasun goiztiarrean, hemengoa eta hangoa lotzen hasi nintzen, joko hori, idazle batekin, edo hobe esanez, haren liburu batekin lotuta geratu zitzaidan. Nire irakurzaletasunaren lehen loraldian, -hala deitzen diot, duela berrogei urte inguru, bizi izan nuen etapari-, modu korapilotsuan, liburuak irensten hasi nintzen.

Hasierakoak, Baroja, Unamuno, Poe, eta Proust izan baziren, hurrengoak, Garcia Marquez eta Cortazar izan ziren nagusiki, eta euskarazkoak Gereñorenak.

Argentinarraren *Rayuela* liburuaren azala ikusi nuenen, umetan ezagutu nuen munduarekin lotu nuen. Klarionaz marraztutako, *koixo-pla* jokoaren zelaia, ordurarte ikusitako liburu azal serioekin alderatuta, originala, berria, eta era berean, ezaguna eta geure-geurea iruditu zitzaidan.

Idazleak, bere eleberria ume jolas bat bezala antolatu zuen, haren esanetan, sormen literarioa umeen irudimena bezalako delako.

Modu poetiko honetan azaldu zuen jokoa idazleak.

*‘La rayuela se juega con una piedrita que hay que empujar con la punta del zapato, y un bello dibujo con tiza, preferentemente de colores. En lo alto está el Cielo, abajo está la Tierra, es muy difícil llegar con la piedrita al Cielo, casi siempre se calcula mal y la piedra sale del dibujo. Poco a poco, sin embargo, se va adquiriendo la habilidad necesaria para salvar las diferentes casillas (rayuela caracol, rayuela rectangular, rayuela de fantasía, poco usada) y un día se aprende a salir de la Tierra y remontar la piedrita hasta el Cielo. Lo malo es que justamente a esa altura, cuando casi nadie ha aprendido a remontar la piedrita hasta el Cielo, se acaba de golpe la infancia y se cae en las novelas, en la angustia al divino cohete, en la especulación de otro Cielo al que también hay que aprender a llegar.*

*Y porque se ha salido de la infancia, se olvida que para llegar al Cielo se necesitan, como ingredientes, una piedrita y la punta de un zapato’.*

Jokoa, sinplea bezain ederra izanik, munduan zehar ezaguna da, eta hainbat izen hartzen du lekuan lekuko dituzten hizkuntzen arabera.

Herri askotan, baita Nafarroan ere, *trukemé* ere esaten zaio, baina marrazkien itxura kontutan harturik, hainbat lekutan, el *avión* edo el *avioncito* izenez ezagutzen da. Nahiz eta gure inguruan, jokoa marrazkia laukiz osatutako irudi geometrikoa izan, ordutik, ene irudi mentalen ganbara nahasian, hegazkin gisara ikusten, edo hobe esan, horrela irudikatzen hasi nintzen.

00:56:43

Gai honi lotuta badut nik oroipen bat, behin, zerura begira nire ume irudimenak asmatu zuena, non eta Ataunen. Rayuela liburua irakurri eta urte asko pasatu eta gero, asteburu pasa On Joxemielen herrira joan ginen. Ataun, herri luzea aitajaun.

Herriak berak barnebiltzen dituen herrietatik ibili ginen, Euskal Herriko Aitaren etxea ere ikusi genuen, eta errekatxo batetara ere jaitsi ginen. Han aurkitutako tetraedro itxuradun harrixka eder etzan hura, harro dago ordutik gure etxeko apal batean.

2021-12-01, 13:07

*Aitak mezu bat bidali digu esanez, gaur amatxurekin Ginekologoarengana joan zaretela, eta haren esanetan, Covida pasatu ostean, amatu eta biok oso ondo zaudete. Esan nizun bezala, dena pasatzen da.*

*Jada, zure ahots-kordak itxura hartzen hasi zaizkizu, munduratzten zarenean, indarrez garrasi egin dezazun. Isilik egotea asko balio du, baina batzuetan...*

*Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea.*

Errekaren inguruan zegoen karteltxo batek, bestaldean Ugalde izeneko baserri bat zegoela adierazi zigun. Gero jakin genuen, Donostian bizi baina jatorriz ataundarrak ziren familia ezagun batek erosi berria zutela.

Jakin izan bagenu, Dorronsorotarrei bisitatxoa egingo genien. Ezkongabe ginela haien Amarako etxean lo egindakoak gara, eta gero baita Intxaurrendokoa ere. Pepa, emakume atsegina.

Beraiei esker, ohiko eta ez hain ohiko sagardotegiak ezagutu genituen. Amaran haiekin ginela, kalean artisau bati erositako zurezko kaioa, etxean sabaitik eskegita dugu. Zintzilik daraman pita hariari tiraka egin ezker, etxeko ume eta ez hain umeen harridurarako, dotorezia handiz hegan egiten du.

Gure ostatua, mendian gora eta gora zegoen. Kotxeek hitz egingo balute, gureak ezetz esango zigun. Gure asteburua, Ota-Mots aldean dagoen Aldarreta baserrian igaro genuen.

Leku zoragarria benetan. Oraindik gogoan ditugu, logela azpian zegoen kortako ‘aromatxoa’ usaintzen genuela, eta nola ez, hango etxekoandreaken adeitasuna, eta hark prestatzen zizkigun afari paregabeak. Baina batez ere, oraindik ahaztezinak zaizkigunak, hango terrazan, irakurtzen eta zerura begira igarotako orduak dira. Zeru urdinean, harbelean tizaz egindakoak ziruditen hogeit bat marra zuri ikusi genuenean, emazteari, ‘*Rayuelak*’ esan nion, Cortazarren liburua oroitarazi zidatelako. Badakit oso kontu subjektiboa izan zela.

Beste inon ez dut ikusi, hegazkinek utzitako horrenbeste lurrin lorratz. Argi dago aire esparruan, Ataungo zerua eremu estrategikoa dela. Nire memoriarentzat, antza denez magikoa ere bai.

Eta bihartik aurrerako noizbaitean, nahiz eta ni hemen izan, nire nitasuna eta naiztasuna galbidean baleude, edota nire memoria argitasun gutxiko basoa balitz, sinetsita nago, egoera lanbrotsu horretan, norberak inoiz mirestutako paisaiak berriro ikusteak, igarokorra bada ere, irribarre bat ernatzeko balioko luketela. Eta hala ez balitz, hasperen sakon bat eginez, hango aura usaintzen edo hangotarrei begira geratuko nintzateke, ene baitan bildurik, ezerezean.

**N**ire memoria pizteko, mugikorreko audioak edo oharra kontsultatzea ezinbestekoak izaten ditut, eta baita inolako ordenarik gabe, izaera, tamaina, eta kolore guztietako paperen karpeta zaharrak irekitzea ere. Beti aurkitzen dut irribarrereren bat.

Kromoak bailiran, mahai gainean papertxoak zabaldu, eta haiei begira egoten naiz, nire kuriotsitatearen dronak bat aukeratzen duen arte.

Gaur eskuetan hartu dudan papertxoa txikia da, hegazkinean enbarkatzeko erabilitako txartel baten zatitxoa. Bertan, duela hogeita hamabi urte nuen idazkerarekin, eta boligrafo beltz batekin idatziak, *JF* -saso hartako nire lankide baten izenaren inisialak-, *Hotel Alcalá*, eta *'El Bosco'* hitzak daude.

Hiru hitz edo giltz-gordeak, nire memoria labirintikoan sartzeko, atak ireki dizkidatenak.

Lehenengo bi izenak irakurtzerakoan, buruari eragin diot, eta pentsakor jarri naiz, laguna duela hamabi urte gaztea zelarik zendu zelako, eta hotelaren izenak ere pasarte ilun bat gogorarazten didalako. Hirugarrena irakurtzerakoan aldiz, barrezka hasi naiz, behin, koadro baten inguruan gertatu zitzaidana begietara etorri zaidalako.

Lankide harekin bi bidai egin nituen, eta gogoan dut haietako batean, Madrilen, Muguruza eta Esnaola diputatuak hilabete gutxi lehenago, bata erail eta bestea larri zauritu zituzten hotel berean hartu genuela ostatua. Gogoan dut baita, bai igogailuan edo kafetegian ginenean, *'Hemendik ibiliko ziren hiltzaileak'* -erdaraz, lankideak ez baitzekien euskaraz- esaten ibili ginela. Eszenatoki berberan egon ginen, baina ez grabaketa egunean.

Margolariarekin lotzen dudana eszena ordea, atseginagoa eta alaiagoa da gogora ekartzeko.

Goizeko lana bukatu genuenean, bulegoko delegatua eta hirurok, bazkaltzera joan ginen. Jatetxeko hormak, koadro ospetsuen litografiekin josita zeuden, eta gure mahaiaren parean zegoena, gero jakin nuenez, El Boscorena zen. Hari begira jarri nintzen, eta erabat txundiduta nengoela ikusirik, hirugarren lagunak, ea koadroa ezagutzen nuen galdetu zidan. Ustekabean hartu nuen galdera, baina nire baitan zerbait piztu zitzaidan.

Ezetz erantzun behar nion, nire harridura ez zegoelako koadroaren ezagutzan, baizik eta han agertzen zen enbutuan, baina ordurarteko gure giroa hain izan zen atsegina, hari segida emateko, betondoa zimurtu eta erdaraz, *‘Bai noski, Enbutuaren legea du izena’* erantzun nion.

Jada, nire ironia puntua ezagutzen zutenez, jarri nuen aurpegi serioari kasurik egin gabe, berehala barre-algaraka hasi ziren, eta ni beraien atzetik.

Gure irri-karkarak baretu zirenean, gure mahaikideak aditu gisara, enbutua buruan jartzearena, aspaldiko kontua zela esan zigun, eta pertsonen erokeria adierazteko erabiltzen zela.

Haren esanetan, antza denez Erdi Aroan bazen sinesmen bat, uste zuena pertsona ergelen edo leloen izaera inozoa, buru barruan zuten harrizka batek eragindakoa izaten zela, eta hori sendatzeko, ebakuntza kirurgikoa egiten zitzaien.

Boscoren koadroak, *‘Eromenaren harriaren erauzketa’* izena du, eta margolariak modu satiriko eta barregarri batean, gizakien eromena eta sineskorkeria erakutsi nahi izan zituen.

Egun hartatik aurrera, inbutu bat ikusten dudan bakoitzean, El Boscoren koadroa ez ezik, nire lankidea gogoratzen dut, eta modu kateatuan, delegatu jakitun hura, Madrileko hotel haren izena, eta baita, han bertan behin gertatu zena ere.

Bizipen hark, gerora irakaspen bat utzi zidan. Nagoela han edo hemen, aurrean dudan pertsonak, edozein delarik ere, beti du zerbait interesgarria kontatzeko, eta diona, gustuko dudan gaietatik urrunekoa izan arren, kontu handiz entzun behar diot, beste ezagutza-bide bat ireki diezadakeelako. Irakaspenak ere beraien sortegunak izaten dituzte. Jakin badakit, berendiak edo zerendiak behin kontatu didaten bitxikeri hura gogoratzeaz gain, non eta noiz izan zen ere gogoratzeko nire obsesioak, gaixotasunetik ere asko duela.

**A**iba! zelako sorpresa gaurkoa. Uste nuen, kutxa zaharrean gordetzen nituen Instituto garaiko oroipen bakarrak, lehen aipatu ditudan literaturako apunteak zirela, baina gaur egin dudan miaketan, marrazketa teknikoa klaseko lamina batzuk aurkitu ditut. Txinatar tintarekin eta marrazketa-lumaz egindako marrazki linealak dira.

Nire orduko idazkeraz, lanen izenburuak *-Perspectiva del Yunque, Polea, Cigüeñal, Brazo portaplato, boca de riego, etab.-*, kurtsoa, nire izena eta baita klaseko nire zenbakia ere aipatzen dira. Errotulatzailleen agerpena orduantxe ezagutu genuen, baina debekatuta geneukan lan hoietarako erabiltzea. Irakaslea jatorriz galiziarra zen, gizon ona bezain taberna zalea. Izena José Antonio zuen, abizena Figueruelo, baina txikia zenez, 'Poto' ezizenez ezagutzen genuen guztiok.

00:49:04

Gure herrian ‘*Potozorria*’ (potrozorri) gizaki edo edozein gauza txiki eta ñimiñoa aipatzeko erabiltzen dugu. Mapucheek *Laucha* deituko zioten.

Marrazkiak eskuetan hartu ditudanean, Institutoko garai haiek gogoratzen hasi naiz.

Gimnasiako irakasleak Don Gabriel izena zuen, sarritan Don Grabieli ere deitua, guretzat ‘*Bigotes*’ zen. Falangista sutsua zen, zerbaitegatik ‘ematen’ zigun Formación del Espíritu Nacional klasea, nahiz eta guk ‘hartu’ ez. Haren atzetik Modesto etorri zen, eta mantxua zenez guk ‘*Mantxue*’ deitzen geniona. Hau ere falangista zen, baina ez hain sutsua. Institutoa utzi eta gero, ur kontagailuak neurtzen ibili zen. Idazteko, libretoa besondo edo muinoiaren gainean jarriz, abilezia handia zuen.

Institutoan bi atezain zeuden, bata Felix ‘*Zentimos*’ herritarra, institutoan bertan goikaldeko dorretxoan bizi zena, eta bestea Eusebio ‘*Sitsen bola*’ ezizenduna, kanpotik etorritakoa.

Zuzendaria, Don Marino zen, matematika klaseak ere ematen zituen. Zaragozatik etorritakoa zen, gizon serioa, baina bere abizena Condón, ezohikoa bezain barregarria egiten zitzaigun. Normala zen.

Lehen kurtso hartako oroipen gisara, badut nik dokumentu kutun bat, klasekide guztion izenak eta zenbakiak zerrendaturik biltzen dituen.

00:47:45

Duela hamabost urte edo holakoren bat, idazkaritzan lan egiten zuen ezagun bati eskatutako mesedeari esker lortutakoa da. Kostatu zitzaion artxibo zaharretan bilatze lanak egitea, baina emakume txinpartatsua bezain saiatua denez, aurkitu zuen eskatu niona.

Laurogei bat mutil koxkor izan ginen bi gelatan banatuak, eta klase mistoak hurrengo ikasturtean hasi zirenez, batzuk errepikatzen hasi ziren.

Zerrendatxoa irakurtzen dudan bakoitzean, zendu berri bat antzematen dut, azkena Alberto Arrien gaixoa izan da. Abiadura igotzen hasia da.

Hitz hauek idazten ari naizen bitartean, lagunarteko mezu batek, Natura Zientziak ematen zigun Azua irakasle herritarra hil dela iragarri dit. Zin dagit.

2021-12-09, 11:01

*Aitak mezu bat bidali digu. Bere audioan zera diosku, -Amatxu emaginarengana joan dela, baina titularra gaixorik egon denez, ordezkioak artatu duela. Ordezkoa nor eta gure Leire izan dela, zure aitaren lehengusina, eta Covid madarikatuak eramanez nire arreba maitearen alaba-.*

*Leiren esanetan, ondo zaude. Harek hala badio, hala da. Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea.*

Erantsia (22/02/11)- Liburuari azken ukituak ematen ari nintzela, mezu batek, Ziriako Goienetxea 'Pollasa', hil egin zela zioen. Kurtso haretan nire alboan jesartzen zen. Klaseko 27 eta 28 zenbakiak ginen. G Bego.

Zuzendariaren semea ere gure klasekidea izan zen, eta mekanikako klaseetan, tornu edo fresatzaile makinetan bikoteka ibiltzen ginenean, biok batera aritakoak gara. Aritu, aritu ginen, baina ikasi ezerez.

Duela gutxi sareek esan didatenez, gaur egun Oviedoko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko irakaslea da, eta orain bere izenaren atzetik amaren abizena darama. Nekatuta egongo zen aitarena eramateak zekarkion zamarekin. Ulertzen diot.

Gaur bertan, sarean bere Unibertsitateko helbide birtuala aurkitu dut, eta mezu bat bidali diot. Erantzungo balit, ziur nago hark ere bere oroitzapenak izango lituzkela, eta galdutako harremana berreskuratzeak, nire memoria hauspotzeko ere balioko lukeela. Zuzendariaren semea izanik, agian orduko argazkiren bat ere izango du, norbaitek izatekotan, uste dut hark beste inork baino errazago izango duela. Nire memoriak ahoa okertuz, ezezko keinua egiten dit.

Fisika-Kimikako andereñoa, Begoña Isusi amurriotarra izan zen. Emakume bizkorra eta baita ausarta ere, gerra osteko garai haietan ezohikoa zelako emakume batek horrelako ikasketa teknikoak egitea. Bere hankak enborrak bezalako lodiak zirenez, guk *'Katxa-palo'* deitzen genion.

Duela zazpi urte, lau lagun haren etxera hura bisitatzeraz joan ginenean, 'kimika' berezia sortu zen, eta pozez eta adeitasunez hartu gintuen.

Mende erdi geroago, ia mende osoa zuen nortasun handiko emakume harekin, egun ahaztezin bat pasatu genuen. Atera genuen argazkiak lekuko dira.

Begoñak, fisikako problemak ondo egiteko, lehenago enuntziatua irakurri egin behar zela azpimarratzen zigun. Ondoren, berriro irakurri badaezpada, gaizki irakurtzeak okerreko erabakiak ekar ditzakeelako. Amaitzeko, irakurri dugunari soluzioa emateko, formula egokia bilatu, eta tentu handiz, eragiketak egin. Aholku ona ez da ahazten.

Behin, azterketa egun batean, hasi baino lehen zera galdetu zigun, *‘Zer egin behar da lehenago?’*.

Gogoan dut ni altxatu nintzela, eta *‘Irakurri’* esan niola. Berak *‘Ondo Ugalde’* esan zidan. *‘Eta gero?’* galdetu zuenean, nik *‘Berriro irakurri’* erantzun nion, eta berak *‘Oso ondo Ugalde’* esan zuen. Baina, *‘Eta gero?’* galdetu zuenean, nik adin horretan genuen lotsagabekeriaz, *‘Berriro irakurri’* erantzun nionean, aurpegi serio batekin, *‘Ugaldeee!, gehiegi irakurtzea da’* esan zidan. Lotsa orain heldu zait.

Txinatar tintarekin egindako lamina hauek, nire oroitzapen goiztiarren atea ireki didate, baina ez Institutoko lau hormen barruan bizi izan nituen kontuetaz amesten hasi naizelako, baita kanpokaldeko bizipenetaz ere bai, izan ere bere fatxada, terraza, harresia, eta barandek, guztiak nire umetako paisaiak direlako, nire jaiotetxea, Institutoaren aurrez-aurre eta zortzi metro eskasetara baitzegoen. Kale berekoak ginen.

**B**izitza liburu bat bezalakoa da, eta azken orrialdeetan gaudenean, gure senak somatzen du ibilbidearen kontrazalera hurbiltzen ari dela, eta modu naturalean, prestatzen hasten da bere azken hitzak idatzita uzteko.

Gure amak, bere azken orrialdean zegoenean,

*Ama, ama, ama, noiz?,  
ama noiz?,  
noiz?,  
noiz?,  
noiz?. zioen.*

Bere amari galdetu nahi zion, ea noiz bukatuko zen birikietara tantaka iristen ari zitzaien oxigeno eskasak eragiten zion arnasestua. Amonak Agoniarekin hitz egin zuen, eta azkenean, amari bere azken hitzaren ordua heldu zitzaien.

Nahiz eta jakin bagenekien egoerak ez zuela atzera biderik, agurrak egun ezin ilunagoa ekarri zigun. Amaren heriotza, heriotza guztien ama ere bada, gure bizitzako zilbor-hestearen deusezteia eta harekin izan dugun lotura etetea dakarkigulako. Beste heriotza guztietan ere, gure oroimenak haren aura gogorarazi eta agertaraziko digu.

Gogoan dut hileta eguna, eta batez ere, eleizan amaren izena aipatzen zen bakoitzean, nire bihotzak nolako taupadak jaurtitzen zizkidan.

Momentu larriena, korutik pianoaren lehen notak entzuten hasi nintzenekoa izan zen. Gero, zerutarra zirudien neskato baten ahotsa, kanta ezagun bat abesten hasi zen, baina ez berezko letrarekin, hilabete batzuk lehenago, ni neuk jarri nionarekin baizik. Momentu batean, bihotza lehertu egingo zitzaidala pentsatu nuen. Ez dut sekula ahaztuko.

Hurrengo asteetan nire dolua arnasten hasi nintzen. Ama galtzen dugunenean, gure erraiak urratzen dira, *amazurtz* geratzen garelako.

Sentitzen nuen hutsunea arintzeko, bere ahotsa noiznahi agertzen zitzaidan, bazirudien amak zegoen tokitik ere kontsolatu nahi ninduela.

Gero, amaren ahotsa entzun nahi nuenean, begiak ixten nituen, edo tarteka, berari azken urteetan egin nizkion grabaketak entzuten jartzen nintzen.

Bi ohitura hauek, begiak ixtearena eta grabaketena, betirako sustraitu egin zitzaizkidan.

Badut nik liburu bat amaren agurrarekin lotzen dudana, haren urteurrenaren bueltan erosi nuelako, eta batez ere, amaren ahotsarekin lotura bat aurkitu niolako. Liburua beltz-beltza da, bere izenburua ere '*Beltzuria*', eta Ixiar Rozasek idatzitako da. Liburu ederra da, poesiaz betea.

Ama eta liburuaren arteko lotura, ez da liburuaren izenburuak edo azalak eragindakoa, liburaren hitzak eta ahotsak sortutakoa baizik.

## 00:41:15

Batez ere, bi orrialde dira noiznahi irakurtzen ditudanak, hauxe diote:

*Zer gertatzen da ahotsaren espazioan. Zer, ahotsa desagertu aurretik. Eta ondoren?.*

*Saiatu berriki hil den norbaiten ahotsa gogoratzen.*

*Emaiozu denbora lasai bat zure memoriaren erreskate lanari. Hildako pertona gertukoa bazen, errazago gogoratuko duzu.*

*Behatu gertatzen dena. Entzun. Ahotsa gorputzean entzutea lortzen duzunean, beharbada, bibrazio moduko bat.*

*Saiatu jarraian aspaldian hildako pertsona maite horren ahotsa gogoratzen.*

*Behatu gertatzen dena. Entzun.*

*Ahotsa zuregana ekartzea lortzen baduzu etzazu berriro askatu.*

Bihartik aurrerako noizbaitean, nahiz eta ni hemen izan, nire nitasuna eta naiztasuna galbidean baleude, edota nire memoria argitasun gutxiko basoa balitz, sinetsita nago, egoera lanbrotsu horretan, amaren argazki batzuk ikusteak, igarokorra bada ere, irribarre bat ernatzeko balioko luketela. Eta hala ez balitz, bilatu ezazue nire SoundCloudean ‘Ama’ izeneko abestia, ene baitan bildurik eta hasperen sakon bat eginez, begiak itxita ezerezean, entzuten geratuko nintzatekelako.

00:39:51

**B**adira hileta batzuk, besteak baino ahaztezinagoak egiten zaizkigunak, zendu direnak etxeakoak edo hurbilekoak izaten direlako. Nire zerrenda ilun honi hasiera eman ziona, koinatu Fernandorena izan zen. Urte bete luzez gaixoaldi gogor baten ostean, gaztea zelarrik utzi zigun. Oraindik gazteagoa zen arreba alargundu eta gure bi ilobek umeak zirela aitarik gabe geratu ziren.

Arreba baten sufrimendua, sakona da, sustrai bereko odola, edo odol bereko sustraiak garelako.

2021-12-25, 15:22

*Gaur hegazkinean etorri zara (zure lehen hegaldia), arreba, aita, eta noski amatxurekin. Izeko, amona eta hirurok, aireportuan itxaroten egon gara, pozik zuek ikusteko irrikitan. Han datoz!!*

*Irla txiki batetako, herrixka txiki batean gaude oporretan, eta itsasoaren aurrean bazkaltzen ari gara. Lehen aldiz, muskuiluak, lapak, datilak edo muergoak, eta baita ganboiak ere jan dituzu. Urte batzuk pasatu beharko dira, bigarren aldiz gutizi hauek jan ditzazun.*

*Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea.*

Ez dut hileta haren oroitzapenik, aldiz irteerako mezan neuri gertatu zitzaidana ez zait sekula ahaztuko. Behin bizitzen duguna, nekez ahazten da.

Koinatuaren baimenarekin edo beharbada hark aginduta izango zen, gauza da bezperan parranda itzela egin nuela, eta gaupasa egin ostean, bi ordu eskas lo eginda heldu nintzela mezatarara.

Elizkizunaren erdikaldean gutxi gorabehera, zorabiatzen hasi nintzen, eta gero eta larriago sentitzean, emaztearen laguntzaz kalera atera nintzen, haize apur bat arnasteko beharrea nengoelako. Gerora, ez dut izan halako ondoezik.

Behin zorabiatu naizenez, egun seinalatuan behar zuen izan. Gertakizun hau gogoratzen dudana bakoitzean, liburu baten izenburua dakorkit gogora, Francis James Finnen *‘Una vez y no más’* liburuarena. Gaur egun nire apaletan dagoena, baina betidanik gure etxean izan dena, ziurrenik bere sasoian Karmeldarrek arrebei agindutako irakurketa izango zelako. Hor dago liburuaren, neuk itsatsitako paperezko azalarekin, gaztelaniaz idatzitako liburuen artean, Cortazar, Poe, Proust, Saramago, eta abar, bizilagun arraroak dituelarik.

Amaren hileta elizkizuna ospatu zen eleiza berean, badut nik iltzatuta beste hileta bat sekula santan ahaztuko ez dudana. Lankidea eta lagun on bat zen Miguel Angel, atsegina eta adeitsua. Gazte zendu zen, eta ez modu arruntean, hondartzan familiarekin zegoelarik izan zuelako herioren bisita.

## 00:37:15

Bulegotik kanpo ere izan genuen harremana, sarritan Mendatara palaka jokatzera joanak ginelako. Izaeraz txapelduna zen, ez aldiz pilotaka. Mendatan gertatutakoak baditut harekin izandako bizipen alai batzuk, baina orain haren hileta dut xedea, eta ezer ahaztu orduko, hari ekin behar diot.

Haren hileta egunean, hilkutxa eramaten parte izan nintzen, eta momentu hori da sekula ahaztuko ez dudana. Eguraldi lehorra egin zuen, eta nik neramatzan oinetakoak ez ziren gomazko zoladunak.

Baina elizara sartzerakoan, euri fina hasi zen, eta zorua erabat busti zenez, gogoan dut nola hasi nintzen laprast txikiak egiten, nire bihotzaren taupadek handitzen joan ziren heinean. Hala edo nola heldu ginen aldarera, baina ez nintzen batere lasaitu, barruan nuen beldurra handiegia zelako.

Elizkizun osoan, nire buruan oinetakoen eta lurraren hezetasuna, besterik ez zegoen. Lagun zenduari bere ontasun guztia nire alde jartzeko erregutu nion, ez nuelako nahi, bera lurrean ikustea. Lurrean ezagutu ginen, bai, baina zutunik.

Eta hala izan zen, nahiz eta kaleranzko bidean ere estu eta larri labankada txikiekin ibili nintzen, inor ez zen konturatu nire egoeraz, eta azkenean laguna hileta-autoan utzi genuen inolako arazorik gabe. Lagunak ez zidan entzuten, baina barru-barrutik *‘Eskerrik asko’* esanez agurtu nuen.

00:35:57

Ordutik, hiletetan euria ari denean, lau andarien oinetakoei erreparatzen diet, ez nukelako inondik inora nahi, nik hain hurbil ikusi nuen egoera dramatiko hura, beste batzuek benetan bizitzea.

2021-12-28, 10:25

*Irla txiki honetatik, askoz txikiagoa den beste batetara joan gara itsasontziz (zure lehen itsasaldia), eta bertako hondartxatxo batean egon gara.*

*Zure amatxuk esan digu, hemezortzi aste daramazkizula bere sabelean, beraz gutxi gorabehera, beste horrenbeste falta dira zure aurpegia ikus dezagun. Hortzak sortzen ari zaizkizu, eta pixa egiten ere hasia zara, 'Txizeti!'.*

*Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea.*

Baina dudarik gabe, hiletekin ditudan oroitzapen latzenak, protagonistak umeek zirenekoak dira.

Hamar bat urte izan nituenean, denbora tarte laburrean bi aldiz, bi jaioberriren hilkutxa zurixkak andari edo andero gisa bizkarrean eraman genituen. Bata, Emilio nire lagunaren lehengusina baten alabatxo zen, gainera nire teilatupean bizitzen zena, eta bestea, Markel lagunaren arrebatxo. Beraz biak, nire bi lagun etxe-etxeok ziren. Orduan ikasi genuen, heriorena egia zela. Ordutik, esaldi bat dut gogoan. '*Bost ume eta hilkutxa bat*', film dramatiko baterako izenburua.

00:34:39

Oraindik gogoan dut, egin genuen ibilbidean, kaleetan zegoen isiltasuna, itzelezkoa izan zela.

2021-12-29, 10:05

*Lehen aldiz itsasoan igerian ibili zara. Pizinetan askotan ibili zara, baina itsasoko ura freskotxoagoa somatu duzu, hala ere, amatxoren babesean, ez duzu hotzik igarri. Zaku amniotikoa, neoprenorik onena da.*

*Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea.*

**O**rrialde batzuk atzerago, Enekoren esparruan, kontatzen ditudan oporraldiak, inolako dudarik gabe, gure memoriaren lurretan, betirako mugarri bezala sustraituta geratuko zaizkigu.

Lehen aldiz, Eguberria, Urte zaharra eta berria etxetik kanpo ospatzea, berez oroigarria bada, Enekoren ernaldia gehitzean, oraindik ahaztezinagoak egingo zaizkigu. Gainera, atera genituen argazki bildumek, elkarrekin igarotako egun zoragarriak gogoraraziko dizkigute.

Liburu hau idazteko, eta eraman nituen bi liburuak irakurtzeko izan nituen tartetxoak ere, berebizikoak eta ahaztezinak egin zitzaizkidan.

Eguberri haietara, bi liburu eraman nituen. Bata txikia eta laburra, eta beste handia eta mardula, baina biak mami ederdunak. Hegaldiaren lehen orduan, *‘Motx-motxean’* irentsita nuen, baina hala ere, irakurketa sakonagoa egiteko, edozein momentutan irakurtzeko moduko liburutxo da.

Igerabideren aforismoak, musuak edo laztanak bezalakoak dira, ederrak eta gozoak, edonon eman edo jasotzeko modukoak, eta liburuaren formatua, aproposa bakeroen atzeko poltsikoan eramatekoa.

Hala irakurri nuen eguerdiko Malvasia ardo zuri lehorrari lagun egiteko, bazkari ostean ron-etzia eskuetan, jatetxean entzuten ziren hizkuntza anitzen artean, geureari ere lekua emateko, eta gauean, apartamentuko teilatu lau edo zabaltzan itsasoari begira nengoelarik, nire bakardadeari, Afrikatik inguru haietara tarteka etortzen diren patereetaz erantzun gabeko galderak egiteko.

Beste liburua, Irene Vallejoren *‘Infinitua ihi batean’*, adreilua bezalako da, pisutsua eta gorputsua, bai oratzerakoan eta bai zukutzerakoan ere. Hitz batean azaltzeko, liburua *‘artefaktua’* da, gure jakin-minaren epizentroan eztanda egiten duelako.

Hitzaurrean bertan, Humberto Ecoren aipu eder bati egiten dio lekutxo, *‘Liburua, koilararen, mailuaren, gurpilaren edo aitzurren kategoria berekoa da. Behin asmaturik, ezin da ezer hoberik egin’*. Uau!.

Liburuen historiaz ari den liburua denez, aldi berean, irakurzaletasunaren historia ere bada.

Gau batean, liburua eskuetan nuela, atsedena hartzeko, gure euskara herritik urrun, ipadean euskal telebista ikusten jarri nintzen, eta nire sorpresarako, Eitbko ‘Artefaktua’ saioan, idazleari berari eta baita Fernando Rey itzultzaileari egindako elkarrizketa bat ikusi nuen. Bideoa aurrera joan ahala, berriro liburua irekitzeko eta xurgatzeko gogoia areagotzen joan zitzaidan.

Gogoan dut, bideoa amaitu zenean, emazteari eta alabari zera esan niela, *‘Begira ezazue eta entzun emakume honek diona, eta nola esaten duen. A ze pasioa duen. Bere naturaltasuna, zintzotasuna eta jatortasuna gorenak dira.’* Nirekin ados egon ziren.

Eta bihartik aurrerako noizbaiten, nahiz eta ni hemen izan, nire nitasuna eta naiztasuna galbidean baleude, edota nire memoria argitasun gutxiko basoa balitz, sinetsita nago, egoera lanbrotsu horretan, Eguberri haietan norberak ateratako argazkiak berriro ikusteak, edo egun haietan irakurritako liburuak berriro esku artean izateak, igarokorra bada ere, irribarre bat ernatzeko balioko luketela. Eta hala ez balitz, hasperen sakon bat eginez, haiei begira geratuko nintzateke, ene baitan bildurik, ezerezean.

00:30:47

Oporraldi gehienak, urteen poderioz ahazten eta lausotzen joaten zaizkigu, baina hala ere, izaten dira gutxi batzuek, bizitutako gertakizun bitxiren edo larriren baten eraginez, bultzaka, harrokeriz, eta ‘*Gu hemen!*’ esanez, gure memoriaren antzokian, beraien lekutxoak aurrekaldean egiten dituztenak.

Oporraldietako oroitzapen batzuk ehundaka aldiz kontatuak izaten dira, batez ere famili edo lagunarteko bazkarietan, neuronen gainberaren eraginez, gertatutakoa eta asmatutakoa ezkongai hasiberriak bailiran, batak besteari orain tiraka eginez, eta geroxeago amore emanez, dantzan, haserre, saltoka eta musuka hasten direnean.

Baina idaztera nihoan gazte garaietako opor haiek, aspaldidanik nire memoriaren lehen lerroan daude, indartsu eta lotsagabe, aurreneko postuak ematen dioten handinahikeriaz.

Hauek dira oporraldi haietatik ornamenturik gabe geratzen zaizkidan irudiak edo oroitzapenak.

Hiru lagun izan ginen helmuga finkorik gabeko oporraldi haiek egin genuenak, koadrilako Jon Iñaki, Portugaleteko Nautika Eskolan haren ikaskidea zen Josu Zabala ‘*Menpe*’ mendatatarra eta ni neu. Irteera data jarria genuen, baina egun haietan izandako eurite indartsuen ondorioz, herrian izugarritzko uholdeak izan zirenez, irteera egun pare bat atzeratu egin behar izan genuen.

00:29:35

Kaleko zurrumurruek, herriaren behekaldean zegoen triskantza iragartzen zuten, baina han ikusi nuen hondamena, film batetik ateratakoa zirudien. Zonbi baten modura ibili nintzen, ezin sinetsi ikusten nuena benetan gure herrian gertatua zela.

Paka lehengusinarean dendan sartu nintzen laguntzera, eta han ibili nintzen egun osoan basaz betetako janari kaltetuak kalera ateratzen.

2021-12-31, 10:16

*Gabon zaharrari agurra eta urte berriari ongi etorria emateko, beste herri batera joan gara.*

2022-01-01, 00:00

*Zure lehen Gabon zaharrak dira, eta hurrengoak ere, lehenengotzat hartuak izango dira. Magialaria zara.*

*Pasealekuan suziriak ikusten egon gara, gero lepoan eta buruan apaingarriak jarri eta 'Urte barri barri' kantatzen hasi gara. Amatzuk mahatsak jan dituenetz, zuri ere zeozer tokatuko zitzaizun. Oraingoan ez zara arduratu hezurretaz, baina hurrengoetan kontuz ibili.*

*Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea.*

Iluntzean etxerantza abiatu nintzen, eta kale erditik nihoala, bapatean, ikusiezina zen estolda-zulo apurtu batetik nire burua hondoratzen hasi zen.

## 00:28:16

Eskerrak jendea zebilela, Ibartutxi nire lankide ohia han bertan suertatu zen, eta hark eskua emanda atera ninduen, bestela han joango nintzen portura, menditik zetozen hainbat enborren gisara.

Herriko egoera baretu zenean, Josuren Seat 124an atera ginen, Hondarribi helmugatzat jarritz.

Han eguerdiko txikiteoan genbilela, Josu Garai '*Kapela*' aurkitu genuen. Itsas Kapitanian soldaduzka egiten ari zen, eta egun librea zeukan. Institutoko gure lehen kurtsoko klasekide ohia zen, eta garai batean baita nire auzokidea ere.

Aspaldi zendu zen gaztea zelarrik, eta ez modu ohikoan gainera, okela zati bat geratu baitzitzaion eztarrian, ez aurrera ez atzera. Gizon handia zen, bai gorputzez eta baita ontasunez ere.

Harekin egon eta gero, bazkaltzeko bokata batzuk hartu eta Jaizkibelera joan ginen. Arratsaldean handik jaisterakoan, bizitegi-auzo batetik pasatzerakoan, txalet batetatik dei egin ziguten. Beno deia Jon Iñakirentzat izan zen, harekin nabegatzen ibilitako makinetakoa burua izan zenak ezagutu eta dei egin ziolako. Uste dut izatez arteagatarra zela, baina han bizi zen, Donostian lan egiten zuelako. Etxe hartan sartu eta beste goizera arte ez ginen atera. Haiekin arratsaldeko kopak, afaria eta lo ere egongelako sofetan egin genuen.

Hasiera ezin hobea, kanpinetan lo egiteko esperantzarekin zihoazen hiru gazterentzako.

Hurrengo goizean Donostiara joan ginen gizonarekin, eta han, aurrezki-kutxako bulego nagusia erakutsi zigun, bertan mantentze-lanetako arduradun gisa lan egiten baitzuen. Ez dudana gogoratzen, zein Kutxa izan zen, Donostikoa edo Gipuzkoakoa. Orduan, fusioarena pentsaezina zen.

Eguerdirako Iruñean geunden. Han ere txikiteo nagusia egin genuen, eta bazkarirako bokatak erosi eta gero, hiriaren kanpokaldera abiatu ginen.

Gorantza zihoan bidetxo bat aukeratu genuen, baina atsedeen gune bat aurkitu ordez, guardia zibilen kuartelarekin egin genuen topo. Ezin izan genuen atzera egin, dorretxotik, guardian zegoen zentinelak, barrura sartzeko agindu zigulako.

Egun hartan Estatuko lehen hauteskunde ‘demokratikoak’ egin ziren, eta gure hogeiterterekin -Josuk bizpahiru gehiago- guk ere bozkatzeko aukera izango genuen, baina orduan gure planetan ez zen halakorik sartzen, gure planetan zebilen orbita bakarra, oporrak zirelako.

Despatxu batean banakako galdeketa egin aurretik, hormara begira jarri zigutenean, ziur nago nire buruari ‘*Atzo txalet batean, eta gaur kuartel batean, auskalo bihar non izango garen*’ edo antzekoren bat esango niola. Gogoan dut, adinezko gizon bat gure antzean ‘atxilotuta’ zegoela, eta begiak horman zuelarik, ahots baxuan, ‘*Zuek ere pankartak jarri dituzue*’ galdetu zigula. Orain barrea eragiten dit.

00:25:41

Gero, Josu bere kotxean, eta beste biok lanrober banatan, bakoitza bi eskoltekin, hiriko komisaldegira eraman gintuzten. Han, galdeketa gehiago jasan ondoren, libre geratu ginen.

Kotxea hartu eta poparean Zaragozara heldu ginen. Kanpin batean jarri genuen gure denda, eta hirira jaisterakoan kotxea matxuratu egin zitzaigun.

2022-01-01, 12:15

*Urte berri honetako udaberria, guretzat inoiz baino udaberriagoa izango da, berrien artean berriena, zu zeu izango zarela.*

*Gaur, aitak hitz batzuk esan dizkizunean, pozik, mugitzen hasi zara. Zure entzumena osatzen ari da, hiru aste badirelako entzuten hasi zinenetik.*

*Eneko, hemen hizkuntza ezberdin asko sumatuko zenituen, noizbait zu ere hoietako batzuetan hitzegiteko gai izango zara. Baina zurea euskara izango da. Zaindu ezazu harrotasunez eta bihotzez, zoragarria delako.*

*Laster arte bilobatxo maitea.*

Hala edo hola aparkatu genuen, eta gogoan dut iluntzen hasia zela, eta ni arduratu nintzela afariko bokatak prestatzen. Egin nezakeen gauza bakarra.

00:24:27

Lagunak makinistak zirenez, han ibili ziren kotxearen zilbor-hesteak eta erraiak ukitzen, baina ez zuten ezer lortu. Trago pare bat hartu eta gaua kotxean pasatu genuen. Hurrengo goizean, kaleetatik zehar kotxea bultzaka tailer batetara eramán genuen. Konpondu zigutenean, Kanpinean denda desarmatu, ordaindu eta ospa egin genuen.

2022-01-02, 06:45

*Etxera joateko eguna heldu zaizue. Goizetik esnatu zarete, gosaldú eta aireportura abiatzeko. Guri beste aste bat geratzen zaigu. Laster arte bihotza.*

*Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea.*

Bartzelonatik eta Sitgestik ere ibili ginen, baina ez dut hangorik ezer gogoratzen, ez bada taberna batean izan genuen iskanbila edo liskar hura. Arrazoiáz deus ez. Agian gure hizkuntza izango zen. Valentzian, Salergo kanpinean egon ginela bai, besterik ez, eta Saguntoko egonaldiaren lekuko gisara, antzoki erromatarrean ateratako argazki pare bat dugu. Mediterranea, amnesiaren itsasoa.

Madrilera ere joan beharra genuen, Athletikek Betisen aurka kopako finala jokatzen zuelako. Beharbada, hau izango zen oporraldietako helbururik finkoena, eta beste guztiak ausazkoak.

00:23:06

Gogoan dut, izeko Juliren etxean pasatu genuela gaua, eta baita, nire arreba Maribel eta Juan koinatua han zeudela, beraien ezkonbidaian etenalditxoak egiten, segurutik hurrengo egunetan hegazkinen bat hartzeko izango zirelako.

Gogoan baita, gauetz heldu ginela, eta ez nekiela hango telefonorik. Garai haietan mugikorrik ez zegoenez, kabina batetatik Bermeora Mertxe arrebari deitu behar izan nion, Maribeli atea irekitzeko esan ziezaion. Errazagoa izango zen helbidearekin batera, telefono zenbakia ere nirekin eramatea, baina ez dakit zergatik, ez nuen eraman.

Gazteegia nintzen, bi gauzetaz arduratzeko.

Gure izeko Juli bi hitzetan azaltzeko, familiako asmatika eta atipika zen. Emakume elegantea zen, bizkorra, ezkongabea, mundutik ibilitakoa, antzerkia eta baita musika klasikoa gustatzen zitzaizkiona. Ezohikoegia garai haietarako.

Gerraostean, baserria utzi eta lan bila Madrilerara joan zen. Kafetegi batean, hotel batean, Castelar familia ospetsuarentzat eta baita Ingalaterrako enbaxadan ere lan egindakoa izan zen.

Gure osaba Antoniok, bere koinatua zenak, kamioak zituen, eta izeko, harentzat ere lan egindakoa zen idazkari gisara, Madril aldetik garraiatu behar zituzten kargak antolatzen.

Bermeora etortzen zenean, ez zuen egun askorik egiten, hemengo hezetasunak itotzen jartzen zuelako. Hala ere, udaldi askotan etortzen zen.

00:21:49

Gogoan dut, arnasestuta hasten zenean, bere ahotsak berriro indarra har zezan, inhalagailu bat ateratzen zuela, eta guretzat, gailu ezezaguna zela.

Madrileko bere andra lagunekin, oporretan Europa guztitik ibilitakoa zen, eta gurera etortzen zenean, oporraldi haietako argazkiak erakusten zizkigun. Dotorezia handiz hitzegiten zuen gazteleraz, baina sekula ez zuen galdu, bere Mañu auzoko Bentazarre baserrian, amona Barbarak bularrez eta bihotzez eman zion euskara. Amaren zerizana, ahaztezina da.

Arreba eta koinatua, gurekin etorri ziren Vicente Calderón futbol zelaira, eta gogoan dut, sarrerak birsalmentan erosi behar izan genituela.

Partida berdinketan amaitu zenez, penaltiak izan ziren erabaki zutenak, eta azken jaurtiketan Iribarrek penaltia huts egin zuenean, galdu egin genuen. Beno, Danik ere ez zuen berea sartu.

Burumakur etxerako bidea hartu genuen, baina lehenago Haron geralditxoak egin beharra zegoen, garai haietan lagunentzat ohikoa izaten zelako.

Han ere kanpina jarri genuen eta egun osoa herrian igaro ondoren, goizaldeko ordu txikietan, izugarrizko mozkorrarekin heldu ginen.

Kanpinera iristerakoan, gure denda zegoen ingurutik, motorren argiak eta orroak somatu genuen ihesean. Zarata gehiegi ordu haietarako.

00:20:32

Gure lekura heldu ginenean, laupabost gazte euskaldun aurkitu genituen bilurtuta eta oihuka, laguntza eske. Antza denez, motordunak ‘*Cristo Rey*’ taldekoak ziren eta mehatxuka ibili zitzaien herrian zehar euskaraz aritzeagatik, eta gure kotxea entzutean alde egin zuten. Argizagiak alde genuen.

Haienzat gu izan ginen salbatzaileak, baina gu ere salbatuak izan ginen, zeren gu ez ginen gai izango ezta geure burua defendatzeko ere, eta nahi gabe, gure kotxea izan zen denon arriskua uxatu zuena.

Hauek dira opor luze haietatik gogoratzen ditudan pasarteak, eta baita herrira iritsi nintzenean, lehen egunetan, gauza asko arrotz egiten zitzaidala, etxetik kanpo urteak eraman izan banu bezala.

Nire memoria hauspotzeko, baditut nik zortzi agendatxo, modu eskematiko batean bada ere, beste horrenbeste urtetan, egunez egun, lanean eta lanetik kanpo gertaturiko edo bizitutako efemeride aipagarrienak batzen dituztenak.

Lan kontuetarako sortutako agendak dira, beraien helburua, egunero sortzen zitzaizkidan arazoei edo galderei, erantzun azkar bat ematea zelako.

Arrantza munduan, baserri kontuetan bezala, ez dago ez ordurik ez jairik. Edozein momentuan sortu liteke arazoren bat, eta prest egon behar da, izandakoari irtenbide azkarrena emateko.

## 00:19:15

Egia esanez, agenden ideiatxoak arrantza munduan beste enpresa batean urte asko zeramatzen gizon jakintsu bati hartutakoa izan zen. Hasieran, oinarrizko datuak besterik ez nituen idazten, baina gero gehitzen eta gehitzen hasi nintzen, eta azkenean entziklopedia txiki bat ematen zuen.

Arrantzontzien ezaugarriak, harrapaketak, sareen apurketak eta matxurak, sarrerak eta irteerak, hartutako erregaiek eta prezioak, egindako bidaiak, batzarrak, bazkariak norekin eta non, afariak berdin, portu ezberdinetara sartzeko eskatzen ziguten datu teknikoak, Ekuador, Kolonbia, Panama, Kiribati, Samoa eta beste hainbat lekuko kontsignatarioen telefonoak, Aseguru etxearenak, hornitzaileenak, estamentu ofizialenak, eta abar.

Baina egun bakoitzari zegokion lerrotxoan, egun horretan nire arlo pertsonalean bizi izandakoari ere, egin nien lekutxoak, hitz gako gutxi batzuekin.

Emaztearekin, familiarekin edo lagunekin egindako bazkari-afariak, seme-alaben oporren irteerak eta helduerak, gure oporraldien egunerokoak, ikusitako kontzertuak edo antzerkiak, medikuei egindako bisitak, herriko kultur ekitaldiak, Athleticen partiden emaitzak, eta abar.

Izkina batean gurutze txiki bat marrazten nuenean, norbait hil zela esan nahi nuen. Denetik izan ziren.

00:17:58

Mundakako jaietatik oinez herrira zetozela, kotxe batek harrapatuta hil ziren bi neska haiek esaterako. Ezinbestean, albisteak inpaktu handia izan zuen, gurea bezalako herrietan denok ezagutzen baikara. Biak alaba bakarrak ziren, eta gainera haietako bat, lankide baten alaba zen.

2022-01-10, 12:20

*Gaur goizean goiz medikuarengana joan zarete. Aitak mezu bat bidali digu. Bere audioetan oso ondo zaudela diosku, eta zure pisua gutxi gorabehera, 430 gramokoa dela. Zure bi argazki ere bidali dizkigu. Haietako batean, zure aurpegia argi eta garbi agertzen da, ahoa zabalik duzu eta eskua buruan, pentsatzen ariko bazina bezala. Bestean ikusten dena, lausotsu bada ere, medikuaren esanetan zure `txilinue` da.*

*Arratsaldean arreba batzera ikastolara joan gara. Gure etxera heldu zaretenean, amaxok zure ekografia kopia bat eman digu. Zure gorputza eta aurpegiaren soslaia ikusten dira. Amonak, iman-harri batekin hozkailuan itsatsi du. Han izango zara, zeu heldu arte.*

*Eutsi gogor Eneko, bilobatxo maitea.*

Nire esku-ahur batean sartzen diren zortzi agendatxo hauek, nire historiaren zati bat oroitazten didate. Lerro bakoitzean, bizipen bat. Egun batzuk bizi-bizi ditudan arren, beste batzuk, beste bizitza batean bizi izandakoak ematen dute.

## 00:16:41

Iragana, sarritan leiho lausotsu bat bezalako izaten da, kanpoaldekoa ezaguna egiten zaigu, baina haren xehetasunak ezabatuak daude gure memoriaren arbelean. Lainoak, soslai guztiak lurruntzen ditu.

Eta bihartik aurrerako noizbaitean, nahiz eta ni hemen izan, nire nitasuna eta naiztasuna galbidean baleude, edota nire memoria argitasun gutxiko basoa balitz, sinetsita nago, egoera lanbrotsu horretan, zortzi agendatxo haiek berriro nire eskuetan izatean, igarokorra bada ere, irribarre bat ernatzeko balioko luketela. Eta hala ez balitz, hasperen sakon bat eginez, orrialde haiei begira geratuko nintzateke, ene baitan bildurik, ezerezean.

**B**izitza, iturri batetik darion txorrotada bat bezalako da, zurrupadaka edo eskukadaka zurgatzen duguna, baina gure ahurretan ezer gutxi geratzen zaiguna, eta oroitzapenak, eskuetan geratzen zaizkigun ur tantatxoak bezalakoak dira, baina ezinbestean lehortzen, desagertzen doazenak. Ondorengo oroitzapenak, nitasunetik bizitakoak badira ere, kasu askotan belaunaldi oso batenak ere izan daitezkelakoan nago.

Ur tantak bezalakoak dira, gardenak, garbiak, xumeak eta inozoak direlako, eta ez ilunak, indartsuak eta zaratatsuak, hauek, gertakarien usaina edo kutsua izango luketelako. Helburua ez dute inor harritzea, haren irribarre xaloa baizik.

00:15:23

**N**orbaiten etxera mandatu bat, enkargu bat, edo errekadu bat egitera joaten ginenean, normalean atea irekita egoten zen, bestela eskulekuari eman eta *'Ave Maria Purisima'* esanez, barrura sartzen ginen. Etxeko andreak, *'Sin pecado concebida, Maria Santisima. Sartu laztana'* esaten zigun.

Beti izaten genuen saritxoa, ohikoenak, malbabisko edo eukaliptozko karameloa edo txanpon txiki bat.

2022-02-03, 18:28

*Aitak deitu digu esateko gaur emaginarengana joan zaretela, haren esanetan oso ondo zaude. Ostikoka ibili zara, beharbada entzun duzulako gaur Athleticcek partida garrantzitsua duela Real Madrilen aurka.*

*Zuregatik balitz, gaur bertan aterako zinateke.*

*23:20 (1-0) Enekoren gola !!!!! Legoie zara!.*

*Eutsi gogor bilobatxo maitea.*

**G**ure etxeetan, batez ere telebista agertu aurreko urteetan, irratiak presentzi asko izaten zuen. Gogoan dut, gure etxean irrattia horman apaltxo batean egoten zela, eta amak alboan itsatsita plantxa jartzen ziola, haren esanetan *'tierra'* egiteko. Egia esan, askoz hobeto entzuten zen.

Gure herrian, eta uste dut kostaldeko beste herrietan ere hala izango zela, albisteetatik eta irrati-nobeletatik kanpo, irratsaierik entzunena *‘De cara al mar’* izaten zen. Itsasoan zeuden arrantzaleei, familien goraintziak eta zorionak bidaltzeko saioa izaten zen. Eskeintzekin batera, abesti bat jartzen zuten. Orduetik geratzen zaizkidan kanta doinuak, Jorge Sepulvedaren *‘Mirando al mar’*, Luis Lucenaren *‘Aniversario de boda’*, Jose Guardiola eta bere alabaren *‘Di papa’*, edo Donostiko orfeoiaren *‘Boga-boga’*, esaterako.

Irratsaio horretan ere nola ez, iragarkien tartea izaten zen. Gehien gogoratzen ditudan abestiak, Cola-Cao eta Abascalena dira. Lehena, mundu osoan ezaguna den, *‘Yo soy aquel negrito, ..’* zen. Bestea, uste dut gabardinak saltzen zituen Donostiako denda batena zela. Oraindik doinua eta letra gogoratzen dut, *‘Abascal, Abascal, la primera en España, en prendas impermeables, calidad y artesanía, a unos precios formidables, ...’*. Gaur egun, ez dakit...

**T**elebistaren hasiera garaietako oroipen barregarri bat ere gordetzen dut. Oraindik telebistak zuri-beltzezkoak zirenean, gure alboko emakumeak, izeko gor batekin bizitzen zenak, beraiek koloreetakoa zutela esatera etorri zitzaigun. Arreba eta biok korrika joan ginen ikustera, eta zer aurkituko eta, lehengo aparailuari bi koloreetako plastikozko film bat itsatsi ziotela ikusi genuen.

00:12:47

**O**rduko telebistako saioetatik gogokoenak, ‘*Cesta y puntos*’ lehiaketa, ‘*Historias para no dormir*’ eta ‘*Tras la puerta cerrada*’ beldurrezko telesailak, eta nire adinerako ezohikoa bazen ere, gehien gustatzen zitzaidana, ‘*Estudio 1*’ko antzerki emanaldiak izaten ziren. Orduko aktoreen artean, bi izen nabarmenduko nituzke, José Bodalo eta Luisa Sala.

Gure herrian, norbait itxurakerietan edo plantak egiten aritzen zenean, gizonezkoa edo andrazkoa zenaren arabera, haien izenekin deitzen genien.

2022-02-09, 10:45

*Aitak mezu bat bidali digu. Bere audioan dioskunez, gaur ere emaginarengana joan zarete. Azterketa sakon bat egin eta gero, haren esanetan morroskoa zara, bai neurritz eta baita pisuz ere. Arraunean ikusten zaitut.*

*Zure neuronek, sekula izango duten martxa handiena hartu dute, minutuko ehun mila dituzu berriak, gainera hasi dira elkar konektatzen. Zaindu itzazuz mimoz banan-banan, gero zure aginduetara izango direlako.*

*(Nireak jada, nabarmen gutxituta daudenez, geratzen zaizkidan apurrei, ‘neure onak’ esaten diet.)*

*Zure begiak hasi dira zabaltzen, zure usaimena ere aktibatu da, eta amatxok laztantzen zaituenean somatzen duzunez, pozik mugitzen hasten zara.*

*Eutsi gogor Eneko, atritxen legoie !!*

**L**uisa Sala zendu zenean, albisteak oihartzun handia izan zuen, janaria eztarrian geratzeagatik hil baitzen. Lehen kasu entzutetsuena izan zen, pertsona bat horrela hiltzen zena. Gerora, hainbat kasu ezagutu ditugu, batzuk hurbilekoak gainera, Josu ‘*Kapela*’ eta Allika institutoko klasekideak, eta oraintsu, baita Alberto Arrien lagunaren anaia ere.

**N**iretzat, ezagutu ditudan diru txanpon bitxiena, bi errealetakoa zen, erdikaldean zuloa zuelako. Gogoan dut, kanpotarrak beraiekin gerrikoak egiten zituztela. Harrokeri merkea izaten zen.

**O**raindik gai izango nintzake, gure ume garaiko bi arma egiteko. Bata inozoa, arto-garauak jaurtitzeko, arropak eskegiteko pintza edo gantxoekin egiten zen pistola, eta bestea arriskutsuagoa, harriak tirokatzeko erabiltzen genuen ‘Yiragoma’.

**G**aztetxoak ginenean, herrian ia laurehun arrantzontzi zeuden txiki eta handien artean, tailer mekanikoak eta elektrikoak hogeitaz, eta guzti hoiengatik eraginez, baita bizpairu txatartegi ere.

Inguruetan sakabanatuta erdi erdoilduta aurkitzen genituen burdin zatiak, tresneri zaharrak, edota kobrezko kableak, txatartegira eramaten genituen, bizioetarako sosa gutxi batzuk ateratzeko.

00:10:19

Behin, kobrezko kableekin egindako bola bati, txatartegira eraman aurretik, lagunak harri puxka bat sartu genion. Txatartegiko gizonak, patxadaz eta irribarre batekin zera esan zigun, *‘Barrukoa kendu eta gero, ekarri egizue berriro’*.

Umeak ginenean, gehienok jakanak edo jangarrak ginen, gustuko genuen plateretatik kanpo, ez genuelako gauza handirik jaten. Garai haietan, amen artean modan jarri zen seme-alabei errizino-landarearen olioia edo bakailao-gibelaren olioia ematea, gure hazkuntzarako lagungarri izango zirelakoan. Gogoan dut, gure amak eman zigun jarabe bitaminikoa *‘Gadional’* izena zuela, eta uste dut gaur egun, beste zortziren artean itsuka hartuko banu, bere zaporeagatik asmatuko nukeela.

2022-02-19, 12:35

Pasaiako herritik dator notizia,  
ertz batetik bestera txango berezia,  
guraso-arrebakin pozik aisian,  
Eneko izan dela doan trabesian.

*Gaur berriro itsasontzi batean sartu zara, zeharkaldi laburra izan bada ere, itsasoaren gainean ibili zara. Hurrengo txangoa, nahiz eta mutil koskorra izan, ordaindu egin beharko duzu. Kar-kar.*

*Laster arte bilobatxo maitea.*

00:09:02

Noizbehinka, udaletxe aurretik pasatzen naizenean, txikitako oroipen bat etortzen zait gogora. Haurrak ginenean, herriko aguazilak beldurgarriak izaten ziren, baina bazen bat, haren eginbeharrengatik besteak baino atseginagoa egiten zitzaiguna, ‘*Danborreroa*’, Udalaren bandoa iragartzen zuena. Lehenbizi, herritarren arreta lortzeko danborra jotzen zuen, gero ozenki alkatearen izenean, ordaindu beharreko zergak, ur-horniduraren matxurak kale-konponketak edo beste edozein agindu ‘kantatzen’ zituen.

Bestelako informazioa emateko, hau da norbaiti giltzak galdu zitzaizkiola, pataten kamioia heldu zela, edo beste edozer iragartzeko, esateko zituena esan aurretik, ezberdintzeko korneta jotzen zuen.

Etixerako ardoa erostera, ardandegira garrafoiarekin joaten ginen. Han ezagutu genuen upelen eta zahagian usain indartsuak. Gogoan dut, noiz behinka Baños ardandagiaren kanpokaldean ikusten zen zisterna-kamioian, *Vinos Chivite*, *Cintruenigo (Navarra)* jartzen zuela. Herri izen arraro hura, tatuaiatuta daukat nire memorian.

Gure ama mediku baten etxean neskame izandakoa zenez, injekzioak jartzen ondo zekien, eta hala izanik, gure etxea sarritan anbulategi txiki bat bihurtzen zen. Ezagutu nuen lehen erizaina, ama.

00:07:42

Behin, ume koskor bat nintzela, harrituta geratu nintzen, emakume baten sorbaldari itsatsita, bentosa gisara edontzi bat ikusi nuenean. Sorginkeria edo magia iruditu zitzaidan, amak azalpenak eman zizkidan arte. Gure sukaldean izan zen, eta sorbalda, amaren izeko Simonarena.

**H**amasei urte besterik ez nituen, oposaketa haien ostean lanean hasi nintzenean. Azterketaren lekua ere gogoan dut, gerora nire departamentua edo saila izango zena. Bulegoa, labirintikoa zen.

Ezin ahaztu lehen soldata, gutun-azal batean eta dirutan izan zen. Zenbatekoaz deus ez, baina ireki eta Aiba!, asko iruditu zitzaidan. Baina gero, kutxazainak barkatzeko esan zidan, erratu egin zela eta nirea beste zenbateko bat zela. Lehena kopetan.

**Z**ortzi urte inguru izango nituen, ileapaindegi hartara joan nintzenean. Goiko Plazaren goikaldean zegoen, gure gaurko garagearen aurrez-aurre. Jabea nagusia zen, eta bere izena Felix zelakoan nago. Apur bat totela, hitz-motela edo *tartanie* zen, gogoan dudanak hori baieztatzen didalako.

Behin, ilea mozten ari zidan bitartean, puzkarra bota zuen, eta adinak ematen duen patxadarekin, ‘*Tru, tru, tru, trugioie*’ esan zuen. Trumoiaren burrunba izan zela sinestarazi nahi izan zidan.

00:06:24

Ordutik, sarritan neuk ere, puzkarra ateratzen zaidanean, momentu horretan nire ondoan dagoenari, gauza bera *es, es, es, esaten* diot.

Nire arreba Maribelek guztiok bezala, bere bereak ziren istorioak, hitzak eta esaerak zituen, erara zetozkionean kontatzen zizkigunak.

Behin, norbaiti gladiolo loreetaz aritzean, ‘*gladilorue*’ esaten entzun zion, eta grazia egin zionez, sarritan ateratzen zitzaion gertaera hura.

Orain bera joan zaigunez, gladiolo hitza entzungo banu, arreba gogoan nik ere ‘*gladilorue*’ esango nuke, argi utziz norengandik hartua dudan istorioa.

Badakit, izatez ez dela solasaldi arruntetan azaltzen den horietakoa, baina hor dago nire erronka, nahi gabe esaten dudalakoan egin, eta arrebaren istorioari, ahal den tokirik egokiena bilatzea. Zina.

2022-03-03, 15::54

*Gaur berriro hegazkin batean zara. Oraindik ez zara mundura atera, baina zu aspalditik munduan zehar heganean zabilta. Ziur nago, etorkizunean urruntasunaren mugaldeen ere ezagutzeko aukera izango duzula. (Liburu batekin ere, hegan egiten da.)*

*Ondo ibili bilobatxo maitea. Atrixten legoie!*

00:05:09

Erretzen hasi ginenean, Celtas laburren paketea gehi pospolo edo mistoen kutxatxo, ogerleko bat edo bost pezeta (0,03 euro) balio zuten.

Gogoan dut, 'Italia' estankotik ateratzean, hango gizon puxka baino garaiagoak sentitzen ginela

Albertxikoa, abrikota edo muxurka jaten dudan bakoitzean, ume garaiak datozkit gogora, barruan daramaten hezurra edo *pizkazurra* guk esaten genion bezala, jolas tresna izaten genuelako.

Kaleetan, etxeen atari edo *kolarre* aurreetan zeuden zuloetara, ea nork *pizkazur* gehiago sartu, joko arrunta izaten zen. Baina bazuen beste erabilpen bitxiago eta zaratatsuago bat ere.

Hezurra hartu eta lurreko harriaren kontra harraskatzen eta harraskatzen genuen, zulotxo egin arte. Gero zotz edo untze batekin, barruko hazia ateratzen genion, eta hezur hustu hori, bi hatzen artean jarri eta ahora hurbiltzen genuen, indarrez putz egiterakoan txistu zaratatsu bat ateratzen zuelako. Bi hatzekin soilik txistua egiteko ganora edo abilezi gutxi zutenak, pizkazurrarekin gai ziren txistu egiteko.

Eztarrarian dugun hezur hioideoari, zintzur-korapiloari edo zintzur-sagarrari, guk intxaurra eta baita *pizkazurra* ere esaten diogu.

00:03:47

**N**ire txikitako kaletik pasatzen naizenean, oroitzapenak pil-pilean jartzen zaizkit. Haietako bat, kalea futbol zelaia bihurtzen zenetakoa izaten da. Atezaintzetako lau zutoinak, jertseiekin egiten genituen, eta langarik ez zegoenez, partida osorako eztabaidak ziurtatuta zeuden.

Bitxiena, nagusiak ‘zelaitik’ pasatzen zirenean izaten zen, denok izoztuta bezala geldirik geratzen ginelako, harik eta ‘espontaneoak’ urruntzen zen. Gero, ezer gertatu ez balitz bezala, bat-batean desizoztu, eta berriro jokoari ekiten genion.

2022-03-16, 12:47

*Gaur, ginekologoarengana joan zarete. Aitak bidali digun audioak, hau dio, “Eneko ederto dago. Pisuz eta luzeeraz, batez besteko neurriak baino pixka bat handiagoak ditu. Kokatuta ere ondo dago”.*

*Jada, zazpi hilabete daramatzazu amaren sabelean, beste bi besterik ez zaigu geratzen zu musukatzeke.*

*Hezurak gogortzen ari zaizkizu, eta zure azala ere luzatzen eta lisatzen ari da, zure hazierari lekua egiteko.*

*Eutsi gogor bilobatxo maitea. Maiatzera arte.*

Instituto zaharrak lekuko gisara, keinu egiten dit, hark jakin badakielako, diodan guztia egia dela.

00:02:29

Isokarroak hiru gurpildun furgonetatxoak ziren, eta gogoan dut, herrian halako bi zeudela. Bata, Elordui ‘Katorse’ okinarena zen, eta bestea, Uriarte ardogilearena. Norbaiti entzun nion txantxetan esaten, ‘Iso’ esanda, astoak bezala lotu egiten zirela.

Urtero San Juan egunean, nire memoriak keinutxo bat egiten dit, gaztetako bizipen bat gogorarazteko. Beno, batzuetan keinutxoak ahaztu egiten du otsailean gaudela, edo ekainak bi duela.

Behin, lagunekin ohi bezala oinez baselizarainoko bidea egin ostean, erromesaldiaren bukaeran ardo txikito bat eskuetan nuelarik, gerriari lotuta neraman artilezko jertsei berria galdu egin nuela konturatu nintzen. Amorratu egin nintzen nirekin.

Oraindik gogoan ditud bere itxura, koloreak eta baita, Teofila lehengusinak ehundutakoa izan zela.

2022-03-25, 21:30

*Gaur, gurasoekin Kafe Antzokira joan zara, ‘Kopaz kopa’ izeneko antzezlan ikustera. Ohitzen ari zara aktoreen ahotsak entzuten, eta haien kontakizunak isiltasunean gozatzen. Baina gaur, ohikoa ez den kontu bat gertatu da, Ainara Ortega aktoreak amatxori begiratu, eta musutxo bat bidali dizu. Zurea bai ohorea. Gurean jada bazinen, baina gaur antzokian ere protagonista izan zara. Handia zara Eneko.*

*Laster arte bilobatxo maitea.*

00:01:42

Udaberriko eta udako egun berotsuetan, gure kaletik artile-jolea pasatzen ikusten genuen, bere lanak hurbileko eremu batean egiten baitzituen.

Izara handi baten barruan, denboraren poderioz trinkotuta geratzen ziren koltxoi artileak ekartzen zituen. Gero, lurrean eguzkitan izara zabaldu, eta *txibita* izeneko makila luze batekin, *Zuip, zap, zuip, zap!* gogor aztintzen zuen artilea, hautsa kendu, askatu, harrotu eta haizatzeko.

2022-04-13, 10:05

Aitaren mezua hartu dugu. Ginekologoarengana joan zaretela diosku. Haren esanetan, oso ondo zaude. Bi kilo eta 700 gramo dituzu eta ematen du bi aste aurreratuta zatozela. Hasi zara mihia ateratzen, praktikatzen ari zara, etorkizunean elikatzeke (baita norbait zirikatzeke ere) funtsezkoa izango duzulako.

Laster arte, atxixen legoie. Hilabete eta zurekin!!

Arratsaldean, trenez Mundakara joan zarete, eta txurroak jan dituzue.

Artile-jolea gizon heldua zen, argala, eta jenio bizikoa. Nahiz eta bere izena Martin izan, denek *Martintxu* deitzen zioten, baina ez txikia zelako, bere barne desioak, ‘ohiz’ kanpokoak zirelako baizik.

00:00:41

Sasoi berean, beheko solairuetan bizitzen ziren emakume batzuk ere (Marta izeneko bat datorrit gogora), handik pasatzen ziren, etxean egindako lixiba, buruan azpiletan edo asketan zeramatelarik. Beraien etxeetan lixiba esekitzea ezinezkoa egiten zitzaenez, inguruko sasitetan zabaltzen zituzten arropak, eguzkitan lehor zitezen.

Gure kaletik, auzokideak ez ziren beste lagun asko ere pasatzen zen noski, txerri-korteetara joaten zirenak, Aritzatxuko hondartzara zihoazenak, Burgora abiatzen ziren mendizaleak, edo auzoan zegoen taberna bakarrera joaten zirenak esaterako. Baina nire oroimenarentzat, haiek ez dira Marta eta Martin bezalakoak, haiei guztiei izena falta zaielako.

**M**ahai gainean liburu ireki bat, atzekaldean mapa bat, eta norbera jesarrita baina aurrera begira. *Klik*. Horixe da askorentzat, garai haietako lehen argazkia, eta kasu askotan, baita bakarra ere.

2022-04-29, 10:37 *Aitaren audioak, hau dio:*

*Gaur berriro, amaxu eta biok ginekologoarengana joan zarete. Haren esanetan dena ondo doa. Pisueraz 3,200 gr. dituzu eta altueraz ere morroskoa zara. Ekografian, zure barrabilak ere agertu dira. Kar-kar! Hiru asteren barruan, gure artean izango zara. Laster arte Eneko, bilobatxo maitea.*

00:00:00

**K**alekantoi hartatik pasatzen naizen bakoitzean, nire memoriak irudi bat bidaltzen dit. Emakume bat aulki batean jezarrita, txigorgailuan ikatza sutan, eta danbolintxoan, senarrak itsaso urrunetatik ekarritako kafea txigortzen.

**G**oizetako lehen kafeari zurrupadatxoa ematera noanean, nire memoria xuxurlatzen hasten zait. Hasieran, aspaldian dastatutako janari edo edarien zaporetaz *oroimintzatzen* hasten da, baina gero, iraganeko zirrikituetatik, beti ateratzen du konturen bat, nerabe garai haietako arropetaz, zaratetaz, lanbideetaz, bizipenetaz, jolasetaz, pertsonetaz, abestietaz, edo beste edozein gaietaz, erruz aritzeko.

...


*‘Horrelakoxeak dira gogoan iltzatuta geratzen zaizkigun txikitako eszena ia liturgikoak ere, memoriaren kobazuloetan gordetako zura eta ura bezalako hitz eta hots koloretsuak, usain eta sentrazioak, usadio eta liturgia partikularrak...’*

*Garrantzia dutelako gorde nahi izaten dizkigu memoriak.’*

ANJEL LERTXUNDI (‘Zura eta ura’ liburutik)

00:00:00

Eta.....



hemen zara !!

00:00:00

2022-05-01, 15:35

*Gaur, zure etxean bazkaldu dugu, eta ondoren, argazkia atera dugu. Agian, amaxuren barruan agertzen zaren azkena izango da. Irrikitan gaude zu musukatzeko. Laster arte Eneko, bilobatxo maitea.*

2022-05-02, 18,00

*Gurasoek prestatu dute zure gelatxoa, arropa, sehaska, lurrin, jostailu eta beste enparau guztiakin. Enarak marrazki bat egin dizu. Bertan, zelai batean zuhaitz bat dago eta eguzkia indarrean da. Zeruan txorien orde, bihotzak jarri ditu. Goian, letra larriz, 'Eneko. Ongi etorri, asko gutsut' idatzi du. Dena prest.*

2022-05-04, 10,48

*Gaur berriro Ginekoloarengana joan zarete. Dena ondo doa, zuk ehun gramo irabazi duzu. Datorren ostiralean, amaxuri uhalak jarriko dizkiote. Uhal hoiak daramaten sentsoreen bitartez, zure erritmo kardiakoa eta amaxuk izango dituen uzkurdurak nola doazen jakingo dute.*

*Azazkalak hazi zaizkizu, eta zure biriak ere betetzen ari dira. Ehuneko ehunera heltzen direnean, zu ateratzeko unea iritsiko da. Hestean kokatu zaizu jada, mukiekin, behazunekin eta larruazaltxoekin osatu den kaka berdexka hori, atera bezain laster obratuko duzuna. Hurrengoak, ohiko koloreak izango dute. Azken luzean sartu zarete. Boga, boga Eneko maitea!.*

00:00:00

2022-05-13, 12:02

*Gaur amatxuri uhalak jarri dizkiote. Aitak bidali digun audioak, ez du hitzik. Hamaika segundotan, zure taupadak besterik ez dira entzuten. Gure poztasunak ez du hitzik behar. Gero idatziz, 3,8 kg dituzula eta oso luzea zarela diosku. Amatxuri esan diote, edozein momentutan atera zaitezkeela, bestela, ostegunean berriro joateko. Laster zatoz Eneko, laster zatoz !!!!*

2022-05-15, 21:28

*Amatxu uzkurdurekin jarri da, eta klinikara zoazte. Ematen du, heldu dela zure aurpegitxoa ikusteko, eta zu ukitzeko eguna. Baina artatu ostean, medikuek, oraindik itxaron egin behar dela diote. Etxera zatozte. Ea bihar.*

2022-05-16, 10:30

*Goizean, portutik lasai paseoan ibili zara. Itsasoa bare dago zure antzean. Amatxuri atsedena eman diozu.*

2022-05-17, 08:45

*Ematen du kalean dagoen sargoria somatu ostean, amatxuren gerizpean, aise egokiturik egon nahi duzula.*

2022-05-18, 08:50

*Atzo bezala, eguraldia eta zure gogoa, kontrajarrian dabilta, bero sapa temati, eta zu aldiz, epelean amati.*

00:00:00

2022-05-19, 13:02

*Gaur berriro uhalak jarri dizkizute, baina amatxuk duen dilatazioa oraindik txikiiegia denez, etxera zatozte. Lehenago zeure kabuz ez bazatoz, hurrengo ostegunean zure ateraldia eragindakoa izango da. Boga Eneko!!!*

2022-05-22, 12:49

*Arrain Azokako azken eguna da. Gurasoekin Lameran zeundela erraldoiak ikusi duzue, eta haiekin eta Enararen lagunenik, argazkia atera duzue. Ea zure jaioaurreko azkena den. Agian, gurean bazkaldu duzun atunak, indartu egingo zaitu arraunean egiteko. Boga !!*

2022-05-26, 08:00      *Osteguna. Goizerako Klinikana !!!*  
*Itxaronaldia luzea iruditu arren, dena iristen da. Ohikoa 'ordu laburtzera' opatzea da, baina luze joko du. Lagundu amatxuri. Boga, azken txanpan zaude eta !!!!*

2022-05-26, 19:30      *Hemen zara !!!!!!!*

*Aitak deitu digu, munduratu zarela esateko. Amatxo eta biok ondo zaudete, eta hori da garrantzitsua. Astiro atera zara, eta ulertzekoa da, 4,3 kg izan baituzu, eta luze-eraz ere, 'goia jotzeko' modukoa zarelako. Oraindik aurrera, gure begi-ninien itu eta xedea izango zara. Ongi etorri gure bihotzen erdigunera. Ikusi arte. Oraintxe bertan, liburu honen artxiboa inprentara bidaliko dut, lehenbailehen paperean atera dezaten. Lehen alea nola ez, bilobatxo maitea zuretzat izango da.*



AURKIBIDEA  
AURKIBIDEA  
AURKIBIDEA  
AURKIBIDEA

# OROITZAPENAK


---

- 01:28:32 - Irratian, Anjel eta liburu hura  
01:28:32 - Piglia eta boxeo  
01:25:36 - Kafka eta arrebaren agurra  
01:20:39 - Artoa maiz  
01:16:33 - Behiak eta John Berger  
01:13:35 - Talaian galdezka  
01:12:14 - Amaren eta amonaren bularrak  
01:10:55 - Liburuak eta zinea  
01:08:17 - Institutoa eta Larra  
01:02:03 - Steinbecken azken hitza  
01:00:47 - *Rayuela* txangoka Ataunen  
00:54:19 - Madrilen, lankidea eta El Bosco  
00:50:23 - Institutoko lehen urtea  
00:43:51 - Amaren agurra eta *Beltzuria*  
00:39:51 - Hiletak  
00:34:39 - Gabon haiek eta bi liburu  
00:30:47 - Oporraldi haiek  
00:20:32 - Zortzi agendatxoak  
00:16:41 - Oroitzapen tantak  
00:00:00 - Memoriaren kobazuloetan

# ENEKO

---

- 01:19:11 - Mutila zara
- 01:06:59 - Konfinatuta zaude
- 00:56:43 - Pasatu da
- 00:47:45 - Leirerekin
- 00:39:51 - Hegazkinean
- 00:35:57 - Itsasontzian
- 00:34:39 - Itsasoan igerian
- 00:29:35 - Gabon zahar/Urte berri
- 00:25:41 - Pozik eta euskaraz
- 00:24:27 - Etxera zoaz
- 00:17:58 - Zure lehen argazkiak
- 00:15:23 - Ostikoka
- 00:12:47 - Hazten, gorputz eta zentzuz
- 00:10:19 - Berriro itsasontzian
- 00:06:24 - Berriro hegazkinean
- 00:03:47 - Zazpi hilabete
- 00:02:29 - Antzokian
- 00:01:42 - Hilabete eta zurekin !!
- 00:00:41 - Hiru aste !!
- 00:00:00 - Eta.... hemen zara !



HONDAR HITZAK  
HONDAR HITZAK  
HONDAR HITZAK  
HONDAR HITZAK

Ahantzura, modu iraunkorrean nirekin bizitzen geratu zenean, oroimenarekin hurko eta hitanoz hitz egiteko ohitura hartu nuen. Beraien arteko bikote-harremana elkarrezina denez, jakin nahi nuen, ea ahulenarekin elkartuta, oroitezari bataila txiki batzuk irabazteko gai izango ginen, guda nagusia ezinbestean galdutzat ematen nuelako.

Hala nenbilela, aitona egin zidaten, eta nirean iragana zukutzeko gogoia, sutsuki hazi zen, Enara bilobatxoari noizbait kontatzeko moduko bizipenak, hala edo hola berreskuratu nahi nituelako.

Baina behin, irribarre maltxur batekin, ahanzturak galdera bat jaurti zidan, *-Noiz kontatuko diozu ba?*

Amorrua eta sormena, nirean betidanik ondo konpondu izan direnez, ideia bat izan nuen. Banekienez Enararen heldutasuna urrun xamar zegoela, eta denbora ere kontra izango nuela, amets egitea erabaki nuen.

Hala atera zen aurreko liburua, *'Mesedez itxi atea'* izenburuduna. Bere edukian, Enara eta biok etxean gara solasean, eta ni, asmatutako haren heldutasunari, nire iraganeko bizipen batzuk kontatzen ari natzaio.

Oraingo hau, modu beretsuan idatzitakoa da. Eneko bidean zela jakin bezain laster, oraindik eskuera ditudan eskarmentu batzuk, harentzat idazten hasi nintzen. Biloba eta liburua, batera munduratu edo argitaratu dira.

Bi zatitan osatua den literatura lan bat, bilogia bat dela esaten badugu, bere ardatzean bilobak dituen bilogia bati, uste dut *bilobalogia* izendatu beharko geniokeela. Hori bai, aho txikiz.

Bi hotsez eta bihotzez idatzitako bi liburu hauei esker, nire eskarmentu batzuk, bi bilobetxoei kontatzean, ahanzturari bataila garrantzitsuena irabazi diot. Oraindik aurrera argitasunez biziko ditudan ordu guztiak, nire garaipenak izango dira. Gainerako bataila guztiak galtzeko, prest nago jada.

## Niteratura

Bihartik aurrerako noizbaitean, nahiz eta ni hemen izan, nire nitasuna eta naiztasuna galbidean balcude, edota nire memoria estaldura gutxiko basoa balitz, sinetsita nago, egoera lanbrotsu horretan, norberak inoiz landatutako hitz-ilarak berriro irakurtzeak, igarokorra bada ere, irribarre bat ernatzeko balioko luketela. Eta hala ez balitz, hasperen sakon bat eginez, liburuaren azalari edo haren irudien zelaiari begira geratuko nintzateke, ene baitan bildurik, ezerezean.

